| III. TALDEKO ENPRESEKIN ETA ENPRESA ELKARTUEKIN EPE LUZERAKO ZORRAK | III. DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A LARGO PLAZO | | |
| IV. GERORATUTAKO ZERGEN PASIBOAK | IV. PASIVOS POR IMPUESTO DIFERIDO | | |
| V. EPE LUZERAKO PERIODIFIKAZIOAK | V. PERIODIFICACIONES A LARGO PLAZO | | |
| C) PASIBO KORRONTEA | C) PASIVO CORRIENTE | 1.265.413,70 | 1.523.940,81 |
| I.SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ KORRONTEEKIN LOTUTAKO PASIBOAK | I.PASIVOS VINCULADOS CON ACTIVOS NO CORRIENTES MANTENIDOS PARA LA VENTA | | |
| II. EPE LABURRERAKO HORNIDURA | II. PROVISIONES A CORTO PLAZO | | |
| III. EPE LABURRERAKO ZORRAK | III. DEUDAS A CORTO PLAZO | 858.289,37 | 828.727,36 |
| 1. Obligazioak eta negozia daitezkeen beste balore batzuk | 1. Obligaciones y otros valores negociables | | |
| 2. Kreditu erakundeekiko zorrak | 2. Deudas con entidades de crédito | 413.381,95 | 407.334,91 |
| 3. Hartzekodunak finantza errentamenduengatik | 3. Acreedores por arrendamiento financiero | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza pasibo batzuk | 5. Otros pasivos financieros | 444.907,42 | 421.392,45 |
| IV. TALDEKO ENPRESEKIN ETA ENPRESA ELKARTUEKIN EPE LABURRERAKO ZORRAK | IV. DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A CORTO PLAZO | | |
| V. MERKATARITZAKO HARTZEKODUNAK ETA ORDAINDUBEHARREKO BESTE KONTU BATZUK | V. ACREEDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A PAGAR | 407.124,33 | 695.213,45 |
| 1. Hornitzaileak | 1. Proveedores | 600,79 | 322.264,77 |
| 2. Hornitzaileak, taldeko enpresak eta enpresa elkartuak | 2. Proveedores, empresas del grupo y asociadas | | |
| 3. Hainbat hartzekodun | 3. Acreedores varios | 151.684,00 | 142.347,81 |
| 4. Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak) | 4. Personal (remuneraciones pendientes de pago) | 748,55 | 70.859,83 |
| 5. Zerga arrunten pasiboak | 5. Pasivos por impuesto corriente | | |
| 6. Administrazio Publikoekin beste zor batzuk | 6. Otras deudas con las Administraciones Públicas | 35.997,79 | 29.897,84 |
| 7. Bezeroen aurrerakinak | 7. Anticipos de clientes | 218.093,20 | 129.843,20 |
| VI. EPE LABURREKO PERIODIFIKAZIOAK | VI. PERIODIFICACIONES A CORTO PLAZO | | |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C) | TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO ( A+B+C) | 79.686.200,05 | 77.936.659,10 |

# V.1.2.- Galdu-irabazien kontua / Cuenta de Pérdidas y Ganancias

| 2022KO EKITALDIARI DAGOKION SARREREN ETA GASTUEN KONTUA - ARABA GARAPEN AGENTZIA<br><br>CUENTA DE PERDIDAS Y GANANCIAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2022 - ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO | | 2022KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| A) ERAGIKETA JARRAITUAK | A) OPERACIONES CONTINUADAS | | |
| 1. Negozio zifren zenbateko garbia | 1. Importe neto de la cifra de negocios | 4.560.369,11 | 2.312.377,19 |
| a) Salmentak | a) Ventas | 3.778.073,10 | 1.599.814,00 |
| b) Zerbitzu emateak | b) Prestaciones de servicios | 782.296,01 | 712.563,19 |
| 2. Produktu burutuen eta fabrikazio bidean dauden produktuen izakinak aldatzea | 2. Variación de existencias de productos terminados y en curso de fabricación | -3.189.595,17 | 349.885,42 |
| 3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak | 3. Trabajos realizados por la empresa para su activo | | |
| 4. Hornidurak | 4. Aprovisionamientos | -245.247,24 | -1.803.311,18 |
| a) Merkantzien kontsumoa | a) Consumo de mercaderías | | -1.618.246,00 |
| b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa | b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles | -245.247,24 | -185.065,18 |
| c) Beste enpresa batzuk egindako lanak | c) Trabajos realizados por otras empresas | | |
| d) Merkantzien, lehengaien eta beste hornidura batzuen narriatzea | d) Deterioro de mercaderías, materias primas y otros aprovisionamientos | | |
| 5. Ustiapeneko bestelako diru sarrerak | 5. Otros ingresos de explotación | 1.138.935,68 | 1.048.775,88 |
| a) Sarrera gehigarriak eta ohiko kudeaketak eragindako bestelako sarrerak | a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente | 1.138.935,68 | 1.048.775,88 |
| b) Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapen dirulaguntzak | b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio | | |
| 6. Langile gastuak | 6. Gastos de personal | -665.219,39 | -754.123,13 |
| a) Lansariak, soldatak eta asimilatuak | a) Sueldos, salarios y asimilados | -528.227,54 | -602.561,18 |
| b) Karga sozialak | b) Cargas sociales | -136.991,85 | -151.561,95 |
| c) Horniketak | c) Provisiones | | |
| 7. Bestelako ustiapen gastuak | 7. Otros gastos de explotación | -1.946.025,24 | -2.069.346,50 |
| a) Kanpoko zerbitzuak | a) Servicios exteriores | -1.850.933,99 | -1.616.185,91 |
| b) Tributuak | b) Tributos | -67.749,01 | -82.661,66 |
| c) Horniketen galera, narriatzea eta aldaketa merkataritza eragiketengatik | c) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales | -714,84 | -34.118,50 |
| d) Kudeaketa arrunteko beste gastuak | d) Otros gastos de gestión corriente | -26.627,40 | -336.380,43 |
| 8. Ibilgetuaren amortizazioa | 8. Amortización del inmovilizado | -2.473.900,78 | -3.785.921,83 |
| 9. Finantzetakoa ez den ibilgetuaren eta bestelakoen dirulaguntzak egoztea | 9. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras | 2.250.503,50 | 3.701.853,88 |
| 10. Horniketen gaindikinak | 10. Excesos de provisiones | | 16.583,38 |
| 11. Narriatzea eta ibilgetua besterentzearen emaitza | 11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado | -91.574,32 | -71.645,83 |
| a) Narriatzeak eta galerak | a) Deterioros y pérdidas | -106.206,38 | -328.709,96 |
| b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak | b) Resultados por enajenaciones y otras | 14.632,06 | 257.064,13 |
| A-1) USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11) | A-1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11) | -661.753,85 | -1.054.872,72 |

| 2022KO EKITALDIARI DAGOKION SARREREN ETA GASTUEN KONTUA - ARABA GARAPEN AGENTZIA<br>CUENTA DE PERDIDAS Y GANANCIAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2022 - ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO | | 2022KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| 12. Finantza sarrerak | 12. Ingresos financieros | 51.338,40 | 56.962,67 |
| a) Ondare tresnetan partaidetza | a) De participaciones en instrumentos de patrimonio | | |
| a1) Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan | a1) En empresas del grupo y asociadas | | |
| a2) Hirugarrenetan | a2) En terceros | | |
| b) Aktibo ibilgetuaren balio negoziagarriak eta kredituak | b) De valores negociables y de créditos del activo inmovilizado | 51.338,40 | 56.962,67 |
| b1) Taldeko enpresena eta enpresa elkartuena | b1) De empresas del grupo y asociadas | 43.641,78 | 45.955,18 |
| b2) Hirugarrenena | b2) De terceros | 7.696,62 | 11.007,49 |
| 13. Finantza gastuak | 13. Gastos financieros | -16.305,96 | -7.073,17 |
| a) Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak direla-eta | a) Por deudas con empresas del grupo y asociadas | | |
| b) Hirugarrenekiko zorrak direla-eta | b) Por deudas con terceros | -16.305,96 | -7.073,17 |
| c) Horniketen eguneratzea dela-eta | c) Por actualización de provisiones | | |
| 14. Arrazoizko balioaren aldaketa finantza tresnetan | 14. Variación de valor razonable en instrumentos financieros | | |
| a) Negoziazio zorro eta bestelakoak | a) Cartera de negociación y otros | | |
| b) Saltzeko dauden finantza aktiboak ekitaldiaren emaitzari egoztea | b) Imputación al resultado del ejercicio por activos financieros disponibles para la venta | | |
| 15. Truke diferentziak | 15. Diferencias de cambio | | |
| 16. Narriatzea eta finantza tresnak besterentzearen emaitza | 16. Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros | 500.400,88 | -679.059,64 |
| a) Narriatzeak eta galerak | a) Deterioros y pérdidas | 500.400,88 | -679.059,64 |
| b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak | b) Resultados por enajenaciones y otras | | |
| A.2) FINANTZA EMAITZA (12+13+14+15+16) | A.2) RESULTADO FINANCIERO (12+13+14+15+16) | 535.433,32 | -629.170,14 |
| | | | |
| A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A.1+A.2) | A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2) | -126.320,53 | -1.684.042,86 |
| 17 Etekinen gaineko zerga | 17 Impuestos sobre beneficios | | |
| A.4) EKITALDIAREN EMAITZA ERAGIKETA JARRAITUAK KONTUAN HARTUTA (A.3+17) | A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+17) | -126.320,53 | -1.684.042,86 |
| | | | |
| B) ETENDAKO ERAGIKETAK | B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS | | |
| 18. Ekitaldiaren emaitza zerga garbien etendako eragiketak kontuan hartuta | 18. Resultado del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos | | |
| A.5) EKITALDIAREN EMAITZA (A.4+18) | A.5) RESULTADO DEL EJERCICIO (A.4+18) | -126.320,53 | -1.684.042,86 |

# V.1.3.- Memoria / Memoria

***ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU***

***2022KO EKITALDIAREN MEMORIA***

## *1. OHARRA- SOZIETATEAREN JARDUERA*

Araba Garapen Agentzia SAU enpresa 1990eko apirilean eratu zen, Promoción de Infraestructuras Industriales Alavesas SA (PRINIA SA) izenarekin. Egun, Gasteizko Jose Landazuri kaleko 13-15 behean du egoitza. Estatutu sozialen 2. artikulua aldatu ondoren, honako hau da helburu soziala:

> *Sozietatearen helburua izango da Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa bultzatzea eta sustatzea, enpresa eta jarduera ekonomiko berriak sortzea eta daudenak hobetzea edo hedatzea sustatuz.*
> *Era berean, sozietatearen xedea izango da Arabako Lurralde Historikoaren jarduera ekonomikoa bultzatzea eta sustatzea, Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, zuzenbide publikoko erakundeen eta haien sozietateen zerbitzurako instalazioak eta azpiegiturak sustatuz, kudeatuz eta eraikiz, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideen arabera.*
>
> *Sozietatearen xedea jardun hauetan guztietan edo batzuetan oinarritu ahal izango da:*
>
> *a) Mota guztietako inbertsioak babestea, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideen arabera, eta behar diren laguntzak ematea.*
> *b) Landa edo hiri izaerako lursailen jabetza, errentamendu edo lagapen tituluak erosi eta saltzea, edozein tituluren truke, baldin eta jarduera ekonomikoen garapena edo ezarpen berria errazteko erabil badaitezke, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak eta lotutako industria eta azpiegiturak barne, edo lurzoru publiko industriala sortzeko erabil badaiteke.*
> *c) Era guztietako azterlanak egitea, hirigintza proiektuak eta lurraldearen garapen ekonomikoa erraztera bideratutako planak eta proiektuak barne, eta eskumena duen administrazioari aurkeztu ahal izango dizkio, izapidetu ditzan, dagokion foru sailarekin lankidetzan.*
> *d) Urbanizatzeko ekintza gauzatzea, hirigintza plangintza formulatu eta egikaritzeko beharrezkoa den edozein ekintza gauzatuz.*
> *e) Eraikuntza ekintza gauzatzea, mota guztietako jarduera ekonomikoak hartzeko, eta hirigintza planetan aurreikusitako ekipamendu zuzkidurak egitea.*
> *f) Urbanizatzeko eta eraikitzeko ekintzaren ondoriozko obrak, instalazio bateratuak eta zerbitzuak garatzea, kudeatzea, ustiatzea eta mantentzea, hala nola sarbideak eta logistika instalazioak, energia sortzea, biltegiak, bulegoak, garbiketa eta mantentze lanak, etab.*
> *g) Enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuetan parte hartzen duten alderdien ahaleginak babestea, eta haien artean jarduera komunak sustatzea, horrek enpresen lehiakortasuna indartzea dakarrenean.*
> *h) Sozietatearen funtsezko xedea den Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoarekin lotura zuzena edo berehalakoa duen beste edozein jarduera.*
>
> *Sozietatearen helburu diren jarduerak zuzenean zein zati batean nahiz osorik zeharka garatzea daude, helburu berdina edo antzekoa duten sozietateetan akzioak edo partizipazioak edukita.*

Bat datoz sozietatearen jarduera eta xedea.

Jarduera garatzeko, bere bulego nagusiak edukitzeaz gain, hainbat lurzati industrial ditu, Arabako Lurralde Historikoko industrialdetan kokatuak; beste higiezin batzuk ere ditu, ondoren saltzeko edo alokatzeko eraiki eta egokitzen dituenak; eta, bazkideak ekarritako lursail eta higiezinak ditu. Gainera, Fernando Buesa Arena Pabiloia izeneko kirolgunea kudeatzen du; Arabako Foru Aldundiak doan uzten du esparru hori erabiltzen.

Arabako Foru Aldundia da sozietateko akziodun bakarra, eta sozietatea Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publiko Enpresarialaren barruan dago.

Hauek aplikatu behar zaizkio: Kapital sozietateen Legea, zeinaren testu bateratua uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuz onartu baitzen, Merkataritza Kodea eta xedapen osagarriak.

Sozietateak beste enpresa batzuetan parte hartzen du, sozietate nagusiaren izaera eduki gabe. 9. oharrean zehazten dira enpresa horiek eta haiei buruzko informazioa.

***2. OHARRA- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK***

***a) Irudi fidela***

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Espainian orokorki onartuta dauden eta indarreko legerian jasotzen diren kontabilitate irizpideak betez egin ditu Administrazio Kontseiluak, horrela kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituztelako, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Akziodunen Batzar Orokorrak onartu behar ditu. Aurreikuspenen arabera, aldaketarik egin gabe onartuko dira. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2022ko maiatzaren 10ean onartu zituen Ohiko Batzar Orokorrak.

Merkataritza Kodearen eta indarreko merkataritzako legeriaren arabera prestatu dira urteko kontuak, eta hauetan ezarritakoa betez: 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra eta Kontabilitate Plan Orokorraren Egokitzapen Sektoriala, 1994ko abenduaren 28koa, higiezinen arloko enpresen Kontabilitate Plan Orokorra egokitzeko arauak onesten dituena. Aipatutako araudia bete da, xedapen horiek aplikatu behar baitira Merkataritza Kodean, merkataritzako legerian eta indarrean dagoen planean xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

***b) Informazioa alderatzea***

2022ko ekitaldiko kopuruez gainera, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dira urteko kontuetan, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin eta eskudiru fluxuen egoerarekin erkatu ahal izateko.

Urteko kontuak 8/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako ereduaren arabera aurkezten dira. 2021eko eta 2022ko ekitaldietako urteko kontuak konparagarriak dira.

Era berean, memoria honetan 2022ko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2021eko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

***c) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren kalkulua***

Sozietateak galerak izan ditu, baina Arabako Foru Aldundiak, bazkide bakarra den aldetik, ohiko jarduera babesteko beharrezkoak diren ekarpenak egin ditu. Bazkidearengandik ekitaldian jasotako ondare ekarpenak 4.231.757,15 eurokoak izan dira: 514.408,00 euro galerak konpentsatzeko, 2.967.354,15 euro aktiboak doan lagatzeko eta 749.995,00 euroko kapital dirulaguntza.. Gainera, 1.650.000,00 euroko ekarpena jaso du Arabako Lurralde Historikoan ekonomia sustatzeko ekintza batzuk finantzatzeko, ekitaldia ixtean hasi gabe zeudenak.

Azaldutako egoeren eta ondare eta finantza egoeraren ondorioz eta Arabako Lurralde Historikoaren foru administrazioko sozietate publikoa denez gero, uste da ez dela sozietatearen jarraipenari eragin diezaiokeen arriskurik eta, beraz, egoki jotzen da, urteko kontuak egitean, lanean ari den enpresa printzipioa aplikatzea.

Erantsitako urteko kontuetan, inoiz, zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromiso batzuk zenbatzeko. Nahiz eta kalkulu horiek aztertutako gertakariei buruzko kontuak formulatzeko datan eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin ziren, litekeena da hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartuko gaituzten gertaerak jazotzea etorkizunean, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, kalkuluaren aldaketaren ondorioak aitortuz.

Zenbatespen horiek batez ere partida hauetan dute eragina:

- Aktibo jakin batzuen galeren ebaluazioa, narriatzearen ondorioz.
- Aktibo material eta ukiezinen balio bizitza.
- Horniduren kalkulua.
- Enpresa elkartuetako partaidetzen balorazioa.

***d) Kontabilitateko irizpideen aldaketak eta kontabilitateko zenbatespenen aldaketengatiko doikuntzak***

Ekitaldian zehar ez da doikuntzarik egin kontabilitate irizpideak aldatzearen edo kontabilitateko zenbatespenak aldatzearen ondorioz.

***e) Akatsak zuzentzea***

2021eko ekitaldian, beste enpresa batzuetako partaidetzak eskuratzeko finantzaketara bideratutako aurreko ekitaldietan lortutako kapital dirulaguntzen emaitzetarako aplikazioen zenbatespena zuzendu du sozietateak. Horren ondorioz, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboen kontuari aplikatutako balio doikuntza bat erregistratu zuen, eta kontu hori 1.541.171,81 eurotan murriztu zen.

Ekitaldi honetan, ez da egin zuzendu beharreko akatsen ondoriozko doikuntzarik.

***3. OHARRA- EMAITZAK APLIKATZEA***

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrean ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko du:

| Banaketa oinarria | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Galera eta irabazien kontuko saldoa | -126.320,53 | 1.684.042,86 |
| **GUZTIRA** | **-126.320,53** | **1.684.042,86** |

| Aplikazioa | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Bazkideen ekarpenak, galerak konpentsatzeko | -126.320,53 | -500.000 |
| - Emaitza negatiboak | 0 | -1.184.042,86 |
| **GUZTIRA** | **-126.320,53** | **-500.000** |

Gainera, 388.087,47 euro aplikatu ditu aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko, ekitaldian galerak konpentsatzeko jasotako ekarpena (514.408,00 euro) ekitaldiko galerak gainditzen dituen zatian aplikatzeko.

*4. OHARRA- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK*

Partidak baloratzeko eta erregistratzeko aplikatu diren kontabilitateko irizpideak ondoko hauek dira:

***a) Ibilgetu ukiezina***

Informatika aplikazioak erosteko kostuan baloratu dira, eta bost urteko epean amortizatuko dira, aktiboa erosi den egunetik hasita.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazioaren zuzkidura 3.357,12 euro izan zen 2021eko ekitaldian, eta 2.539,93 euro 2022ko ekitaldian.

Ez da aktibatu edo kapitalizatu partida horiei lotutako gasturik.

***b) Ibilgetu materiala***

Ibilgetu materialean sartutako ondasunak sozietatearen ohiko jardunari daude lotuta eta erosketa prezioan baloratu dira. Prezio horretan sartuta daude ondasuna funtzionatzen jarri arteko gastu gehigarriak.

Sozietatearen konturako aktibo horien handitzeak eta hobetzeak honela erregistratu dira: ondasunaren erosketa prezioaren balio handiago gisa; prezio horretan sartuta dago ondasuna abian jarri zen arte egondako hobekuntzen eta finantza gastuen zenbateko osoa.

Balio bizitza luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean. Produzitzeko gaitasuna areagotzea edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzea dakarten zabalkuntza eta hobekuntza kostuak aktiboan sartu dira horren balio handiago gisa.

Ibilgetu materiala gerora zuzentzen da, pilatutako amortizazioarekin eta narriaduragatik gertatu diren balizko galerekin.

Amortizaziorako urteko zuzkidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondasun bakoitzerako ondorengo taulan aurreikusita dagoen balio bizitzaren arabera:

| | Zenbatetsitako bizitza baliagarriaren urteak |
|---|---|
| - Eraikuntzak | 33,33 |
| - Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak | 10 |
| -Garraio elementuak | 5 |
| - Informazio tratamendurako tresnak | 5 |
| - Bestelako ibilgetua (garraio elementuak) | 5 |

Ustiatzeko lagatako aktiboak lagapenaren iraunaldian amortizatzen dira (hamabi urte).

Ekitaldian amortizaziorako egindako zuzkiduraren zenbatekoa, 2021ean, 3.244.540,78 euro izan zen. Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 2022ko ekitaldian 2.005.217,49 euro izan da.

Ekitaldia bukatzean, sozietateak elementuren batek narriadurarik izan duen aztertuko du, hau da, berreskuratu daitekeen zenbatekoa kontabilitateko balioa baino gutxiago den. Kasu horretan, galera eta irabazien kontuan narriadura onartzen da. 2022ko abenduaren 31n ez zegoen inolako galerarik narriadurarengatik.

***c) Higiezinetako inbertsioak***

Errentatuta dauden edo errentatzeko diren edo salduz gero datozen ekitaldietan gainbalioa lortzeko diren lurrak eta eraikinak higiezinetako inbertsio moduan sailkatzen dira.

Errentamendutzat hartzen da sozietateak errentariarekin sozietatearen aktibo bat erabiltzeko eskubidea adostea. Aktiboa denbora jakin batean erabiliko da ordainketak edo kuotak jasotzearen trukean. Baina ez da finantza errentamendua izango.

Eskuratze prezioaren arabera baloratzen dira, erosketa prezioa eta eskuratzeko gastuak sartzen direla barruan. Kapitala handitzeko harpidetutako akzioak gauzekin ordaintzeko aintzat hartu direnetan, aditu beregainaren txostenean jasotako eskriturarako balioen arabera baloratzen dira.

Amortizazio linealaren arabera amortizatzen dira, urteko % 3ko portzentajea aplikatuz, aktiboen bizitza baliagarriaren eta izaeraren arabera. 2021eko ekitaldiko amortizazio zuzkidura 523.474,86 euro izan zen, eta 2022ko ekitaldiko zuzkidura 466.143,36 euro.

Aktiboen egoera eta haien balorazioa kontuan hartuta, amortizazioagatiko balio zuzenketaz gain, balio narriadura gehigarria erregistratzen da; izan ere, era horretako aktiboren bat merkatuko arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuengatik narriatuta egon daitekeelako zantzuak daudela egiaztatzen da. Ekitaldian izandako balio narriadura 196.133,94 euro izan da (2021ean, 343.259,03 euro). Metatutako balio narriadura 5.405.750,02 euro izan da.

Arabako Foru Aldundiak (sozietatearen akziodun bakarra) Fernando Buesa Arena Pabiloia izeneko kirol instalazioaren erabilera laga dio sozietateari, doan, hamabost urterako, instalazio hori kudeatu eta ustiatzeko. Instalazioaren xedeari dagokionez, lagapena Ondasun Higiezinen Inbertsioen kontuan erregistratu da, sozietateak lagapen aldian lortu beharreko errenten balio eguneratuarekin, Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen kontuan kontrapartida eginda. Aktibo hori linealki amortizatzen da, lagapenaren hamabost urteko aldia kontuan hartuta.

***d) Errentamenduak***

Sozietateak higiezinak erosteko aukera ematen duten errentamendu kontratuak dauzka sinaturik, errentatzaile den aldetik, eta finantza errentamendutzat jotzen dira.

Izan ere, ez dago errentariak erosteko aukera baliatuko duelako edo baliotu duelako arrazoizko zalantzarik eta, beraz, uste da aktiboaren jabetzak atxikita dituen arriskuak eta onurak eskualdatuko zaizkiola.

Jaso beharreko ordainketen balio izendunarengatik erregistratzen dira, eta, hori dela eta, kontratuek interes tasa jakin bat sorraraziko dutela jotzen da.

Interesak galeren eta irabazien kontura egotzi dira sortu diren ekitaldian bertan, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera.

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentatutako ondasunaren jabetza eta berezko arriskuak eta etekinak errentatzailearenak dira. Horri dagokionez, errentamenduaren ondorioz diren diru sarrerak eta gastuak ordaintzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuari egozten zaizkio.

***e) Ondare tresnak***

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (9. araua. Finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak), taldeko enpresetako, talde anitzetako eta enpresa elkartuetako partaidetzak Kostuko finantza-aktiboen kategorian sailkatzen dira.

Arrazoizko balioan balioztatzen dira, hau da, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egozten zaizkion transakzio kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.
Nolanahi ere, partaidetzen narriaduragatik egindako balio zuzenketak itzulezinak izango dira, baldin eta dirulaguntza bidez finantzatu badira.

***f) Finantza tresnak***

***f.1) Finantza-aktiboak***

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Partida honetan erregistratu dira merkataritzako eragiketen eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko kredituak, zenbateko jakin bat dutenak, zeinetan sozietateak ordaindutakoa eta eratutako gordailuak berreskuratzea aurreikusten baita.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (9. araua. Finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak), kostu amortizatuko finantza-aktiboen kategorian sailkatzen dira.

Hasieran eta geroago, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Irizpide hau aplikatzen da gehienez urte bateko epemuga duten merkataritzako eragiketetan, kontratuzko interes tasa ez badute, epe laburrera kopuru horiek jasotzea espero baita.

Urte batetik gorako epemuga duten eragiketei, balorazio hori aplikatzen zaie, kontratuzko interes tasa esplizitua baitute. Interesak sortzen diren unean erregistratzen dira.

Eratutako gordailuak balio izendunaren arabera baloratzen dira, eta interesak sortzen diren unean erregistratzen dira.

***f.2) Balioaren narriadura***

Finantza-aktiboek liburuetan duten balioaren zuzenketa, berriz, galeren eta irabazien kontuaren kargura egiten da, narriaduraren ziozko galera badago. Narriaduraren zantzuak daudela usteko da baldin eta finantza-aktiboen balio berreskuragarria liburuetan dutena baino gutxiagoa bada.

Narriaduraren ziozko galera ebaluatzeko, aldiz, saldo zordunen banakako azterketa egiten da, aspaldikoak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako kobratzeko arriskua dutenak hartuta.

***f.3) Finantza-pasiboak***

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen zorrak, bai eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zordunketak ere, sozietateak jasotako kreditu edo mailegu eragiketetatik datozen tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak, hala, onartzen diren unean bertan edo geroago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hori kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eransten da. Irizpide hori aplikatzen da, pasiboak epe motzean likidatuko direla uste delako, edo, muga-egun luzekoetan, kontratuzko interes tasa bat ezarrita dutelako.

***g) Izakinak***

Abiapuntua plan partzial bakoitzaren errealitate fisikoa da.
Horiek horrela, azalera bi eratakoa da: industrial garbia edo jabari publikokoa. Elkarri gehituta dagokion poligonoaren guztirako azalera lortzen da.

Oro har, salbuespenak salbu, industria lurzoruko lurzati garbiak Araba Garapen Agentzia SAU sozietatearen jabetzakoak dira, edo izan dira eta industriak instalatzeko saldu dira.

Azalera industrial osoa oinarrizko kontzeptua dugu izakinen balioa kalkulatzeko eta urbanizazioen kostuak egozteko.

Jabari publikoko lurzoruak laga egin behar dira, eta horrenbestez, ez dute balio inbentariagarririk. Haien kostua industria lurzati garbien gainean egotzi behar da.

Salmenta baldintzetan eskuratutako landa lurzoruak eta lurzati eta eraikin industrialak eroste prezioan edo gauzatze balio garbian baloratzen dira (bi balioetatik txikienean, betiere).

Sozietateak lurzoruak erosi eta urbanizatzen ditu, industrialdeak eta eraikinak sustatzeko. Industrialde eta eraikin horiek eroste prezioan edo gauzatze balio garbian erregistratzen ditu (bi balioetatik txikienean, betiere). Gauzatze balio hori, batzuetan, eduki sozial eta ekonomiko zabalagoko helburuen mende dago, sozietatearen xede horrekin bat etorriz (1. oharrean aipatua). Eroste prezioa gauzatze balio garbiaren arabera zuzentzeko, izakinen narriaduragatiko hornidura egiten da.

Abian edo bukatuta dauden sustapenak baloratzean, lurren eroste prezioari lurzatiak salgai jarri arteko urbanizazio gastuak gehituko zaizkio.

Erositako eta bukatutako lurzatiak eroste prezioan baloratzen dira. Sozietateak, hala ere, egin beharreko merkataritza politikarekin bat datorren balorazio irizpidea aplikatzen du, higiezinen merkatuaren uneko egoerari jarraituz. Balorazio irizpide horrek oinarritzat hartzen du lurzoru urbanizatuaren birjarpen kostu zenbatetsia, lurzoruaren tasazio balioan oinarritua. Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Desjabetzeen Zerbitzuak kalkulatzen du tasazio balioa. Balio horri, sozietateak jasandako benetako urbanizazio kostua gehitzen zaio. Irizpide hori aplikatzen zaie industrialde nagusietako lurzatiei, hots, Galzar, Subillabide, Casablanca eta Langraizko industrialdeetakoei.

Balio galera handiagoa dagoela erakusten duten egoeretan, aditu independenteek egindako balorazio bat egin da, benetako balioa zehaztuz. Kontabilitate balioarekiko aldea balio narriadura erregistratuz zuzentzen da.
Irizpide hori aplikatzearen ondoriozko balioaren eta hasierako kontabilitate balioaren arteko aldea izakinen narriaduragatiko hornidura kontuan aurreikusi da.

***h) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak***

***h.1) Aktiboen doako lagapena***

Aktiboen doako lagapenak ustiategian lagatako ondasunaren arrazoizko balioan balioesten dira, eta emaitzetara egozten dira, modu linealean, lagapenak irauten duen aldian (hamabost urte), balio galera erregistratzen den proportzio berean.

***h.2) Kapital dirulaguntzak***

Kapital dirulaguntzak, bestalde, benetan emandako eta ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, eta bizitza erabilgarriak dirauen edo finantzatutako elementuak erabiltzen diren edo haien balioa narriatzen den aldian aplikatzen zaizkie emaitzei. Sozietateak dirulaguntzak lortzeko behar diren betekizun guztiak bete ditu.

Harik eta dirulaguntza dagokion xederako erabil dadin ezarri diren baldintzak bete arte, jasotako edo aitortutako diru kopuruak pasibo galdagarriaren kontuetan erregistratzen dira, diruz lagundutako proiektuak gauzatu arte.

Ustiapen defizitak estaltzeko bazkide bakarrak emandako ekarpenak ez dira diru sarreratzat joko, eta zuzenean funts propioetan erregistratuko dira, betiere itzulgarriak ez badira.

***i) Mozkinen gaineko zerga***

Mozkinen gaineko zerga kontabilitate emaitzatik abiatuta kalkulatzen da, zerga oinarriarekiko doikuntzak aplikatuta. Zerga oinarria zehaztu ondoren, karga tasa aplikatzen da, eta ateratzen den kuota sozietateak eskubidez dituen kenkariek murrizten dute, zerga arruntaren ondoriozko gastua izanik, zerga geroratuaren ondoriozko gasturik agerian utzi gabe.
Hala ere, zerga oinarria negatiboa izan da ekitaldian.
Bestalde, hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko zerga oinarri negatiboetatik eratorritako zerga kredituaren eragina ez da erregistratu.

***j) Diru sarrerak eta gastuak***

Diru sarreren eta gastuen erregistroan sortzapen printzipioa aplikatu da. Hau da, ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean erregistratu dira diru sarrerak eta gastuak, haien ondoriozko moneta- edo finantza korrontea edozein dela ere.

Sozietatearen ohiko jarduerari lotutako lurzatien salmentetatik datozen sarrerak ezagutzeko oinarrizko irizpidea da sarrera horiek formalizazio, eskritura edo salerosketa kontratu egokia duten ekitaldian erregistratzea. Erosleari eskualdatu zaizkio saldutako ondasunari atxikitako arrisku eta onurak; une horretatik aurrera, eten egiten da ondasun horren gaineko ohiko kudeaketa, eta horren gaineko kontrola izateari uzten zaio. Ondorioz, ekitaldi horri egozten zaizkio eragiketa bakoitzetik sortutako galera edo irabaziak, hala badagokie, 4.g) oharrean azaldutako sustapenetarako hornidura aplikatzetik garbi. Salmenta hori egin arte, erosleak kontura entregatutako kopuruak pasiboaren kontuan erregistratzen dira (bezeroen aurrerakinak).

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru sarrerak aitortzen ditu erabiltzaileekin eta/edo zordunekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, entitateak diru sarrera baloratuko du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioak adierazten duen zenbatekoan.
Ez da diru sarrerarik aitortzen elementu homogeneoen trukeetan, hala nola amaitutako produktuen edo bi enpresaren artean truka daitezkeen salgaien trukeetan, produktua beren bezeroei emateko merkataritza lanean eraginkorragoak izateko helburuarekin.

<u>Onarpena</u>

Kontratu batetik eratorritako diru sarrerak aitortzen ditu erakundeak, konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, bete beharreko betebeharrak) bezeroari transferitzen zaionean (edo transferitu ahala).

Ondasun edo zerbitzu baten kontrola (aktibo bat) ondare elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeko eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolaren barruan sartzen da beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta onurak lortzea eragozteko gaitasuna.
Bete beharreko betebehar bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), erakundeak kontratuaren hasieran erabakitzen du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzu emateetatik edo ondasun salmentatik) eratorritako diru sarrerak kontratu betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, betiere erakundeak informazio fidagarria badu aurrerapen maila neurtzeko.

Gizarteak, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru sarreren zenbatespenak. Berrikuspen horien beharrak ez du nahitaez adierazten eragiketaren amaiera edo emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ezin denik.

Data jakin batean erakundea ez bada gauza betebeharraren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, diru sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.

Une jakin batean betetzen diren kontratu betebeharren kasuan, egikaritzetik eratorritako diru sarrerak data horretan aitortzen dira. Inguruabar hori gertatu arte, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoiztean edo fabrikatzean sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatuko dira.

Salmentagatiko edo zerbitzu emateagatiko diru sarrera gisa aldez aurretik aitortutako kreditu eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduragatiko balio zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da narriaduragatiko galera, eta ez diru sarrera txikiago gisa.

*Betebeharra denboran zehar betetzea*

Erakundeak aktibo baten kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena) denboran zehar transferitzen duela ulertzen da irizpide hauetako bat betetzen denean:

a) Zordunak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu sozietatearen jarduerak ematen dituen onurak (normalean, zerbitzu bat ematea) erakundeak garatu ahala, zerbitzu errepikakor batzuetan gertatzen den bezala (segurtasuna edo garbiketa). Kasu horretan, beste erakunde batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke orain arte egindako lana funtsean berriro egin beharko.

b) Sozietateak aktibo bat (ukigarria edo ukiezina) sortzen edo hobetzen du, eta bezeroak kontrolatzen du jarduera garatu ahala (adibidez, zordunaren eremuan egindako eraikuntza zerbitzu bat).

c) Sozietateak aktibo espezifiko bat egiten du zordunarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexu bat edo espezifikazio bereziak dituen ondasun partikular bat) erabilera alternatiborik gabe, eta sozietateak eskubidea du ordura arte osatu den jardueragatik kobratzeko (adibidez, zordunari iritzi profesional bat ematen dioten aholkularitza zerbitzuak).

   Aktiboaren gaineko kontrolaren transferentzia denboran zehar egiten ez bada, erakundeak sarrera aitortzen du, une jakin batean betetzen diren betebeharretarako ezarritako irizpideei jarraikiz.

*Betebeharra denboraren une batean bete izanaren adierazleak*

Zordunak aktiboaren kontrola lortzen duen une zehatza identifikatzeko (oro har, ondasun bat), erakundeak honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

a) Zordunak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzari datxezkion arrisku eta onura esanguratsuak. Puntu hori ebaluatzean, entitateak baztertu egiten du aktiboa transferitzeko konpromisoaz bestelako betebehar bereiziren bat eragiten duen arrisku oro. Adibidez, baliteke entitateak aktiboaren kontrola transferitu izana, baina aktiboaren bizitza baliagarrian mantentze zerbitzuak emateko betebeharra bete ez izana.

b) Sozietateak aktiboaren jabetza fisikoa transferitu du. Hala ere, baliteke jabetza fisikoa aktibo baten kontrolarekin bat ez etortzea. Adibidez, berrerosteko akordio batzuetan eta gordailu akordio batzuetan, zordun edo kontsignatario batek aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake, eta aktibo hori entitate lagatzaileak kontrolatzen du; beraz, aktibo hori ezin da transferitutzat jo. Aitzitik, fakturazioaren ondorengo entrega akordioetan, entitateak zordunak kontrolatzen duen aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake.

c) Zordunak jaso (onartu) du aktiboa, kontratuko zehaztapenen arabera. Entitate batek modu objektiboan erabaki badezake ondasunaren edo zerbitzuaren kontrola zordunari transferitu zaiola adostutako zehaztapenen arabera, azken hori onartzeak ez luke eraginik izango kontrolaren transferentziari buruzko zehaztapenean. Adibidez, onarpen klausula zehaztutako tamaina edo pisu ezaugarriak betetzean oinarritzen bada, entitateak zehaztu dezake ea irizpide horiek bete diren zordunaren onarpenaren berrespena jaso aurretik.

   Hala ere, sozietateak ezin badu objektiboki zehaztu zordunari emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, ezin izango du ondorioztatu bezeroak kontrola lortu duenik bezeroaren onarpena jaso arte.

   Bezero bati produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) proba edo ebaluazio erregimenean ematen bazaizkio eta zordun horrek ez badu kontraprestazioa ordaintzeko konpromisorik hartu probaldia amaitu arte, produktuaren kontrola ez zaio bezeroari transferitu bezeroak onartu arte edo aipatutako epea amaitu arte desadostasuna jakinarazi gabe.

d) Sozietateak kobratzeko eskubidea du aktiboa transferitzeagatik.

e) Zordunak aktiboaren jabetza du. Hala ere, entitateak jabetza eskubidea bezeroaren ez-betetzearen aurkako babes gisa soilik gordetzen duenean, horrek ez lioke bezeroari galaraziko aktiboaren kontrola lortzea.

<u>*Balorazioa*</u>

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuak ematetik datozen diru sarrera arruntak diruzko zenbatekoan baloratuko dira, edo, hala badagokio, haietatik datorren jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan eta, kontrako ebidentziarik ezean, zordunari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, hauek kenduta: entitateak eman ditzakeen deskontu, prezio jaitsiera edo antzeko partiden zenbatekoa, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, urtebeteko iraungitze epea baino gutxiago izan eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak gehitu ahal izango dira, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ez dira diru sarreren barruan sartzen entitateak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak emateko eta zerbitzuak egiteko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Sozietateak, diru sarreraren balorazioan, kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorraren zenbatespen onena, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsurik ez gertatzea, ondoren kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, aktibo horien salmentetako edo erabilerako parte hartze gisa, honako gertakari hauen ondorengoa gertatzen denean (edo gertatzen den heinean) soilik aitortzen da:

a) Salmenta edo ondorengo erabilera gertatzen da; edo
b) Entitateak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen betebeharra, zeinaren zati bat edo kontraprestazio aldakor osoa esleitu baitzaio, ordainduta dago (edo partzialki ordainduta).

*k) Hornidurak eta kontingentziak*

Egoera balantzea egiteko egunean obligazioak ageri badira sozietatearen ondareari kalte eragin ahal dioten iraganeko gertakarietatik sorturik, haien zenbatekoa eta kitatzeko unea zehaztu gabeak direlarik, hornidura gisa erregistratuko dira egoera balantzean, obligazioa kitatzeko sozietateak ordaindu beharko duela jotzen den zenbateko gertagarrienaren egungo balioarekin.

Etorkizunean gauzatu ahal izateko inguruabar bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende dauden eta iraganeko gertakarien ondorioz sortu diren balizko obligazioak ez dira aitortzen urteko kontuetan; memoriaren oharretan ematen da haien berri.

*l) Aktiboen eta pasiboen sailkapena: korronteak eta ez-korronteak*

Balantzean, aktiboak eta pasiboak sailkaturik ageri dira, korronte eta ez-korrontetan. Aktiboak eta pasiboak korronteak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo haien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebeteko epean izatea espero denean. Eskudirua edo aktibo likido baliokideak badira, urtebete baino denbora luzeagoan erabiltzeko muga ezabatuko da.

Ustiapen ziklo arrunta urte batetik beherakoa da. Dena den, Kontabilitateko Plan Orokorra higiezinen arloko enpresei egokitzeko arauak aplikatzearen ondorioz, elementu bat izakin edo ibilgetu moduan atxikitzeko aplikatu behar den zedarritze irizpidea hauxe izango da: zertarako erabiliko den elementu hori, jardueraren xedea kontuan hartuta.

*m) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokide batzuk*

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korronteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Erostean, gehienez hiru hilabeteko epemuga zeukaten.
- Ez dute balioa aldatzeko arrisku nabarmenik.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politikan eta arauetan sartzen dira.

*n) Pasiboak langileei epe luzera egindako ordainketengatik*

Sozietateak ez du erretirorako pentsio planik langileentzat, eta arlo horretako obligazioak Gizarte Segurantzak estaltzen ditu.

Plantilla egokitzean edo langileei egotzi ezin zaizkien beste arrazoi batzuk gertatzean langileak kaleratu behar badira kalte ordaina ordaintzen zaie; bada, kalte ordain horiek kalkulatzeko, lanean eman duten urte kopurua eta zuzendaritzarekin izan ditzaketen berariazko akordioak hartzen dira oinarri moduan. Kontzeptu horren zioz egindako ordainketa guztiak gastu bezala kontabilizatzen dira, kaleratzeko erabakiaren unean bertan.

*o) Ingurumen izaerako ondare elementuak*

Ingurumenari lotutako jardueretarako aktiboak erosten direnean, kostuak ibilgetuaren inbertsiotzat hartzen dira.

Jarduera horren inguruan egiten diren gainerako ordainketak ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

***p) Transakzioak enpresa lotuekin***

Sozietateak enpresa lotuekin transakzioak egin ditu. Esanguratsuenak bere bazkide bakarrarekin (Arabako Foru Aldundiarekin) egindakoak dira. Transakzio horiek ondare eta finantza izaera izan dute batik bat.

Halaber beste transakzio batzuk egin ditu foru sektore publikoko entitateekin, eta merkatuko prezioan baloratu dira.

Sozietateak Arabako Foru Aldundiarekin dauzkan saldo zordunak kontratuko interes tasan likidatzen dira. Tasa hori alderdi biek finkatzen dute eta Aldundiak bere finantza transakzio guztietan aplikatzen du.

***5. OHARRA- IBILGETU UKIEZINA***

“Aplikazio informatikoak” izeneko partidak bilakaera hau izan du:

| Kostua | Euro |
|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **189.117,22** |
| - Altak | 7.905,54 |
| -Bajak | -38.577,64 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **158.445,12** |
| - Altak | 0,00 |
| -Bajak | 0,00 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **158.445,12** |

| Amortizazio metatua | Euro |
|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **-185.457,61** |
| - Altak | -3.357,12 |
| -Bajak | 38.577,64 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **-150.237,09** |
| - Altak | -2.539,93 |
| -Bajak | 0,00 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **-152.777,02** |

| | |
|---|---|
| **SALDO GARBIA** | **5.668,10** |

Guztiz amortizatuta daude informatika aplikazioak, 148.625,42 euroko kontabilitate balio gordin batekin (144.842,74 euro 2021eko abenduaren 31n).

*6. OHARRA- IBILGETU MATERIALA*

Epigrafe hau osatzen duten partidek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian zehar:

| Kostua | Lursailak | Eraikuntzak | Instalazio teknikoak | Altzariak | Tresneria informatikoa | Garraio elementuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **1.058.947,27** | **28.842.862,48** | **4.651.858,43** | **1.190.482,19** | **59.228,33** | **20.124,11** | **35.823.502,81** |
| - Altak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 4.375,83 | 0,00 | 4.375,83 |
| -Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | -31.612,72 | 0,00 | -31.612,72 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **1.058.947,27** | **28.842.862,48** | **4.651.858,43** | **1.190.482,19** | **31.991,44** | **20.124,11** | **35.796.265,92** |
| - Altak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| -Bajak | -1.058.947,27 | -27.624.550,87 | -4.651.858,43 | -1.126.921,09 | 0,00 | 0,00 | -24.462.277,66 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **0,007** | **1.218.311,61** | **0,00** | **63.561,10** | **31.991,44** | **20.124,11** | **1.333.988,26** |

| Amortizazio metatua eta balio narriadura | Lursailak | Eraikuntzak | Instalazio teknikoak | Altzariak | Tresneria informatikoa | Garraio elementuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **0,00** | **-23.951.403,31** | **-3.951.005,83** | **-1.021.348,72** | **-53.829,51** | **-12.074,40** | **-28.989.661,77** |
| - Altak | 0,00 | -2.660.042,76 | -465.185,52 | -112.711,92 | -2.575,78 | -4.024,80 | -3.244.540,78 |
| -Bajak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 31.612,72 | 0,00 | 31.612,72 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **0,00** | **-26.611.446,07** | **-4.416.191,35** | **-1.134.060,64** | **-24.792,57** | **-16.099,20** | **-32.202.589,83** |
| - Altak | 0,00 | -1.707.014,25 | -235.667,08 | -56.314,30 | -2.196,95 | -4.024,91 | -2.005.217,49 |
| -Bajak | 0,00 | 27.624.550,87 | 4.651.858,43 | 1.126.921,09 | 0,00 | 0,00 | 33.403.330,39 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **0,00** | **-693.909,45** | **0,00** | **-63.453,85** | **-26.989,52** | **-20.124,11** | **-804.476,93** |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GARBIA, GUZTIRA** | **0,00** | **524.402,16** | **0,00** | **107,25** | **5.001,92** | **0,00** | **529.511,33** |

- Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, eta ez daukate zama edo kargarik.

- Ekitaldi honetan amaitu da Fernando Buesa Arena pabilioiaren kirol instalazioa lagatzeko epea. 2010ean laga zitzaion sozietateari, eta instalazioaren baja erregistratu da. Bajaren erregistroa erabat amortizatuta zegoenez, ez da inolako emaitza ekonomikorik sortu. Ondoren, berriro laga da instalazioa, hamabost urterako. Instalazioaren xedea kontuan hartuta, lagapen berri hori Ondasun Higiezinetako Inbertsioen partidan erregistratu da.

- Erabat amortizaturik daude eta erabiltzen ari dira 63.363,10 euroko balioa duten higigarriei dagozkien ibilgetuko elementuak, 21.077,42 euroko balioa duten tresna informatikoak eta 20.1124,11 euroko balio duten garraio elementuak.

- Sozietateak kontratatu dituen aseguruen polizek balioa behar bezala estaltzen dute.

*7. OHARRA.- ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK*

Partida honek bilakaera hau izan du:

| Kostua | Lursailak | Eraikinak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **22.525.814,72** | **17.957.368,10** | **40.483.182,82** |
| - Altak | 317.800,00 | 0,00 | 317.800,00 |
| - Salmentagatiko bajak | -1.339.599,27 | -344.129,82 | -1.683.729,09 |
| - Intsuldaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **21.504.015,45** | **17.613.238,28** | **39.117.253,73** |
| - Erosketagatiko altak | 689,37 | 0,00 | 689,37 |
| - Lagapenagatiko altak | 0,00 | 2.967.354,15 | 2.967.354,15 |
| - Eraisteagatiko bajak | 0,00 | -1.454.975,82 | -1.454.975,82 |
| - Intsuldaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **21.504.704,82** | **19.125.616,61** | **40.630.321,43** |

| Amortizazio metatua eta balio narriadura | Lursailak | Eraikinak | Amaierako saldoa |
|---|---|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **-2.919.467,16** | **-7.050.195,37** | **-9.969.662,53** |
| - Altak | 0,00 | -866.733,89 | -866.733,89 |
| -Bajak | 0,00 | 138.773,13 | 138.773,13 |
| - Intsuldaketak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **-2.919.467,16** | **-7.778.156,13** | **-10.697.623,29** |
| - Altak | -2.458,44 | -659.818,86 | -662.277,30 |
| - Eraisteagatiko bajak | 0,00 | 1.454.975,82 | 1.454.975,82 |
| - Balio zuzenketagatiko bajak | 0,00 | 89.927,56 | 89.927,56 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **-2.921.925,60** | **-6.893.071,61** | **-9.814.997,21** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **GARBIA, GUZTIRA** | **18.582.779,22** | **12.232.545,00** | **30.815.324,22** |

***Ekitaldiko mugimenduak***

*Altak*

Arabako Foru Aldundiak Fernando Buesa Arena Pabiloia kirol instalazioaren erabilera doan laga du, hamabost urterako. 2.967.354,15 euroan erregistratu da, hau da, sozietateak lagapen aldian lortu beharreko errenten balio eguneratua.

*Bajak*

Ekitaldian, Burgeluko (Araba) industria lursail eta pabiloien multzoa osatzen duten higiezinen baja erregistratu da, aurreko ekitaldietan gertatutako ezbeharraren ondorioz eraitsi ondoren. Aktibo horiek erabat amortizatuta zeuden.

***Aktiboak***

Aktibo hauek osatzen dute kontu hori:

| | Lursaila | Eraikina | Guztira | Balio galera | Balio garbia |
|---|---|---|---|---|---|
| - Jundizko lursail eta instalazioak | 1.709.870,42 | 0,00 | 1.709.870,42 | -1.709.870,42 | 0,00 |
| - Pabiloien sustapena Subillabiden | 652.069,28 | 2.273.859,82 | 2.925.929,10 | -1.006.018,54 | 1.919.910,56 |
| - Industria nabeak, Artapadura kalea (Gasteiz) | 85.496,12 | 922.503,88 | 1.008.000,00 | -261.331,76 | 746.668,24 |
| - Industria nabea (Chiclana de la Frontera) | 978.031,94 | 3.417.692,51 | 4.395.724,45 | -1.758.338,01 | 2.637.386,44 |
| - Industria nabeak (Chiclana de la Frontera) | 767.878,76 | 2.683.320,98 | 3.451.199,74 | -1.007.616,72 | 2.443.583,02 |
| - Lurzatia, Pedrolan (Zaragoza) | 397.738,00 | 0,00 | 397.738,00 | 0,00 | 397.738,00 |
| - Lurzatia Aguraingo industrialdean | 6.828.384,00 | 0,00 | 6.828.384,00 | 0,00 | 6.828.384,00 |
| - Lurzatiak Logroñon (Errioxa) | 4.091.409,00 | 0,00 | 4.091.409,00 | 0,00 | 4.091.409,00 |
| - Lurzatiak, Miravalles kalean (Gasteiz) | 543.835,79 | 0,00 | 543.835,79 | 0,00 | 543.835,79 |
| - Lurzatiak, Legution (Araba) | 1.518.000,00 | 0,00 | 1.518.000,00 | 0,00 | 1.518.000,00 |
| Pabiloia Subillabideko industrialdean | 2.120.100,36 | 6.158.819,87 | 8.278.920,23 | -2.957.341,10 | 5.321.579,13 |
| - Lursailak eta pabiloiak, Burgelun (Araba) | 1.037.970,78 | 702.065,40 | 1.740.036,18 | -702.065,40 | 1.037.970,78 |
| - Lurzatia, Eskalmendin | 318.489,37 | 0,00 | 318.489,37 | 0,00 | 318.489,37 |
| - Landa finkak | 455.431,00 | 0,00 | 455.431,00 | -412.415,26 | 43.015,74 |
| **Guztira** | **21.504.704,82** | **16.158.262,46** | **37.662.967,28** | **-9.814.997,21** | **27.847.970,07** |

Hau da finken egoera:

***Lursail eta eraikin industrialak***

- Jundizko lursail eta instalazioak: Jundizko industrialdean dauden lurren eta instalazioen zati banaezinaren herenaren jabea da sozietatea. Errentan emanak daude, eta guztira 52.295,06 euro jasotzen dituzte urtean. Haren gainean ezarrita dauden kargei dagokienez, haren zenbateko osoaren balio narriadura hartu da kontuan.

- Pabiloien sustapena Subillabideko industrialdean: Subillabideko industrialdean sustatutako industria pabilioien sustapenak osatzen du partida hori. Hasierako azalera osoa 7.168,24 m² da, eta guztira 6.087,04 m² zeuden erabilgarri ekitaldiaren itxiera egunean. Hauek dira 2021 eta 2022ko ekitaldietako errentamenduen datuak:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Alokatutako pabiloiak | 16 | 15 |
| - Alokatutako azalera | 4.743,27 | 4.212,85 |
| - Alokatutako azaleraren balioa (*) | 1.626.726,10 | 1.587.683,37 |
| - Errentamenduaren bidezko diru sarrerak | 126.524,30 | 128.497,65 |
| -Lagatako pabiloiak | 3 | 3 |
| -Lagatako azalera | 807,35 | 807,35 |
| - Lagatako azaleraren balioa (*) | 293.184,46 | 303.599,56 |

(*) Kontabilitate balio garbia

Hiru pabiloi errentan emanak daude, erosteko aukerarekin, eta erosteko aukeraren zenbatekoa guztira 331.510,15 euro dira.

Hurrengo ekitaldietan lortu beharreko errentamendu kuoten zenbatekoa, kontratuen egungo egoeraren arabera, honako hau da:

| | Euro |
|---|---|
| Urtebete arte | 78.621,27 |
| Bi eta bost urte bitartean | 248.199,18 |
| Bost urte baino gehiago | 99.173,61 |

Sozietateak, 2019ko ekitaldian, sustapen horretako hiru industria pabiloi Añanako Gatz Harana Fundazioari dohainik laga zizkion bost urterako, 293.184,46 euroan (kontabilitate balio garbia).

- Artapadura kaleko industria guneen multzoan C-2.5 izenez identifikatutako industria nabea, 252.000,00 euroko balio gordina (186.667,06 euroko kontabilitate balio garbia) eta 312,50 m²-ko azalera duena, Arabako Foru Aldundiari laga zaio, kontraprestaziorik gabe eta hamar urterako, 2018ko azarotik. Epe hori amaitzen denean, Aldundiak jaso zuenean zegoen egoera berean entregatu beharko du nabea.

- Artapadura kaleko industria guneen multzoan C-2.17 izenez identifikatutako industria nabea, 252.000,00 euroko balio gordina (186.667,06 euroko kontabilitate balio garbia) eta 312,50 m²-ko azalera duena, irabazi asmorik gabeko elkarte bati laga zaio, kontraprestaziorik gabe, elkarren segidan berritzen diren urtebeteko aldietarako.

- Artapadura kaleko industria guneen multzoan C-2.16 izenez identifikatutako industria nabea, 252.000,00 euroko balio gordina (186.667,06 euroko kontabilitate balio garbia) eta 312,50 m²-ko azalera duena, libre dago gaur egun.

- Artapadura kaleko industria guneen multzoan C-2.6 izenez identifikatutako industria nabea, 252.000,00 euroko balio gordina (186.667,06 euroko kontabilitate balio garbia) eta 312,50 m²-ko azalera duena, errentan dago, bi urterako, 2020ko otsailetik. Ekitaldiko errentamendu kuotek 10.320,22 euro egin dute.

- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dagoen 16-UE-1 industria nabea erosteko aukerarekin errentan emanda dago, 10.755,55 m²-ko azalerakoa. Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketa aukeraren baliora doitu zen, eta 2.637.386,44 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreren urteko zenbatekoa 170.695,09 euro izan da.

- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dauden 2-4-5-6- industria nabeak erosteko aukerarekin errentan emanda daude (azalera: 2.614,48 m²). Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketa aukeraren baliora doitu zen, eta 1.033.292,00 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreren urteko zenbatekoa 14.000,00 euro izan da.

- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dagoen 7 industria nabea erosteko aukerarekin errentan emanda dago (azalera: 592,52 m²). Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketa aukeraren baliora doitu zen, eta 239.052,55 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreren urteko zenbatekoa 3.900,00 euro izan da.

- Chiclanako Badenes industrialdeko industria pabiloien multzoaren barruan daude 8, 9, 10 eta 11 pabiloiak. Guztira 2.435,14 m²-ko azalera dute, eta errentatuta daude. Errentamenduagatik lortutako diru sarreren urteko zenbatekoa 24.099,92 euro izan da.

- Sozietateak, 2014ko abenduan, Subillabide industrialdeko eraikuntza errentatzeko kontratua sinatu zuen. Obra hori sozietateak egin zuen. Errentamenduak 25 urte iraungo du, eta bost urteko aldietarako luzatu ahal izango da. Errentariak edonoiz baliatu ahal izango du erosteko aukera. Urteko errenta 332.000,00 euroan finkatu da eta modu sistematikoan eguneratzen da. Erosteko aukeren ondorioetarako, hasieran 7.505.958,00 euroko balioa finkatu da, eta ekitaldi bakoitzean murriztu da higiezinaren amortizazioaren arabera; ekitaldiaren amaieran, 5.320.595,67 euroko kopuruan ezarri da. 2022ko ekitaldian sortutako kuotatan, guztira, 381,868,56 euro bildu dira.

  Lurren balioa, erosteko aukeraren ondorioetarako, 1.318.002,00 euroan finkatu da. Balioaren narriadura erregistratu da, erosteko prezioaren eta lursaila erosteko aukeraren balioaren arteko aldearen arabera kalkulatuta. Era berean, balio galtzearen eragina hartu da kontuan, erosteko aukeraren iraupena baloratzeko orduan, eta, hala narriadura gehigarri metatu bat erregistratu da, 1.649.286,07 eurokoa.

  Eragiketa finantzatzeko, Arabako Foru Aldundiak 2.500.000,00 euroko zenbatekoa ordaindu du kapitaleko dirulaguntza kontzeptupean, baita 4.000.000,00 euroko zorpetze baimena ere, mailegu bat izenpetzeko. Ekitaldia ixtean, maileguaren saldoa 1.829.272,12 eurokoa zen.

- Aurreko ekitaldietan Burgelun kokatuta dauden lursailak eta pabiloiak gehitu dira, guztira 3.195.012,00 euroko balioarekin.
  2019an gertatutako ezbeharraren ondorioz, eraikin guztiak suntsitu ziren, eta lurzoruaren balioa soilik hartu da kontuan.

- Partida hori osatzen duten gainerako lurzatiak eta eraikinak saltzeko edo alokatzeko daude eskuragarri.

## *Landa finkak*

Aurreko ekitaldian Aldalur Araba SLk egindako xurgapen bidezko bat egitearekin, gozamen eskubidea gehitu zaio Aldundiaren jabetzako zenbait landa lurren gainean, lur banku baten berezko xedeetarako. Finken balioa eta egoera honako hau da:

- Finka libreak, 545.054,12 m²-ko azalerarekin eta 70.938,06 euroko balioarekin (kontabilitate balio garbia, 41.194,55 euro).
- Errentapeko finkak, 12.154,82 m²-ko azalerarekin eta 2.816,35 euroko balioarekin (kontabilitate balio garbia, 1.821,19 euro).
- Prekarioan lagatako finkak, 1.128.839,66 m²-ko azalera eta 373.676,59 euroko balioa dutenak, balioa erabat galduta.

## *Fernando Buesa Arena pabiloia lagatzea*

2022ko ekainaren 14an, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen beste doako lagapen bat egitea sozietateari, Fernando Buesa Arena pabiloiaren kirol instalazioa ustiatzeko. Lagapenak hamabost urte iraungo du, 2022ko abenduaren 31tik aurrera, abenduaren 30eko 925/2010 Erabakiaren bidez onetsitako lagapenaren indarraldia amaitu ondoren.
2022ko abenduaren 31n, sozietatearen ordezkariek eta Saski Baskonia SADren ordezkaritzak erabaki zuen Saski Baskonia SADren alde hamabost urtez instalazioa erabiltzeko eskubidea ezartzea, saskibaloiko talde profesionaleko erakunde horren jarduerarekin zuzenean lotutako jarduerak egiteko. Ordainetan, Saski Baskonia SADk 250.000,00 euroko kanona ordainduko dio urtean sozietateari. Lehenengo lau urteetarako indarrean dagoen zenbateko hori bosgarren urtetik aurrera berrikusiko da.
Instalazioaren erabilera lagapena Álava Agencia de Desarrollo SAUren aktiboan sartu da Ondasun Higiezinetako Inbertsioen partidan. Eragiketaren izaera, aktiboaren xedea eta lagapen aldian lortu beharreko zenbatekoak kontuan hartuta, 250.000,00 euroko urteko kanona eta lagapenaren iraunaldia erreferentziatzat hartuta baloratu da, eta lortu beharreko errentak kontratua sinatzean indarrean zegoen Euriborraren tasaren arabera eguneratu dira.

## *8. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK*

Sozietateak bere jabetzako higiezinen errentamendu kontratuak, erosteko aukeradunak, sinatu ditu eta oraindik indarrean ditu. Kontratua amaitzen denean jabetza juridikoa errentariari eskualdatu ahal izango dio. Hortaz, atxikita dituen arriskuak eta onurak errentariari eskualdatuko zaizkiola uste da.

Kontratu horien ondorioz, 2021eko eta 2022ko abenduaren 31n honako saldo hauek egon dira oraindik kobratu gabe:

| | Saldoa 2022.12.31n | Saldoa 2021.12.31n |
|---|---|---|
| - Epe laburrean | 95.556,29 | 82.130,22 |
| -Epe luzean | 995.761,45 | 1.091.317,76 |
| **GUZTIRA** | **1.091.317,74** | **1.173.447,98** |

Kontratu eta saldo hauek daude ordaindu gabe:

| | 2022 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Epe luzea | Epe laburra | Guztira | Epe luzea | Epe laburra | Guztira |
| - Subillabide | 262.084,51 | 22.365,45 | 284.449,96 | 284.449,96 | 21.980,79 | 306.430,75 |
| -Subillabide | 139.814,64 | 9.642,93 | 149.457,57 | 149.457,58 | 9.477,08 | 158.934,66 |
| -Subillabide | 140.520,58 | 9.621,87 | 150.142,45 | 150.142,45 | 9.456,39 | 159.598,84 |
| -Subillabide | 129.646,70 | 9.775,82 | 139.422,52 | 139.422,52 | 9.606,35 | 149.028,87 |
| - Casablanca-Guardia | 232.529,51 | 30.029,38 | 262.558,89 | 262.558,90 | 29.290,23 | 291.849,13 |
| - Barratxi | 91.165,51 | 14.120,84 | 105.286,35 | 105.286,35 | 2.319,38 | 107.605,73 |
| **GUZTIRA** | **995.761,45** | **95.556,29** | **1.091.317,74** | **1.091.317,76** | **82.130,22** | **1.173.447,98** |

Kontratuen alderdi garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Sozietateak Betoñuko industrialdeko Barratxi kalean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2012an, hura erosteko aukerarekin, 187.679,87 euroko zenbatekoan. Kontratua 2027an amaituko da, eta ekitaldia ixtean, pabiloia 105.286,35 euroan eros daiteke.

- Sozietateak Casablancako industrialdean dagoen industria pabiloi bat errentan emateko kontratu bat sinatu zuen, erosteko aukerarekin, 466.787,54 euroko zenbatekoan. Kontratua 2023an amaituko da, eta ekitaldia ixtean, pabiloia 262.558,89 euroan eros daiteke.

- Sozietateak 2019an Subillabideko industrialdeko lurzati baten errentamendu kontratua sinatu zuen, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 356.980,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 284.449,96 euro da haren zenbatekoa.

- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2020an, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 149.457,57 euro da haren zenbatekoa.

- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu du 2021ean, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 150.142,45 euro da haren zenbatekoa.

- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu du 2021ean, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 139.422,52 euro da haren zenbatekoa.

- Hona hemen ekitaldi bakoitzean kobratu beharreko zenbatekoak:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Urtebetera arte | 95.556,29 | 82.130,22 |
| - 2 eta 5 urte bitartean | 402.828,39 | 394.497,22 |
| - 5 urte baino gehiago | 592.933,06 | 696.820,54 |
| **GUZTIRA** | **1.091.317,74** | **1.173.447,98** |

Errentamendu kuoten bidez printzipalaren amortizazioa eta interesak ordaindu behar dira. Hona hemen kontratuetako interes tasak:

| | Interes tasa |
|---|---|
| - Subillabide | 1,75% |
| - Barratxi | 2,50% |
| - Casablanca | 2,50% |

Horrez gain, sozietateak higiezinen zenbait errentamendu kontratu ditu izenpetuta, 6. oharrean, “Higiezinetako inbertsioak” izenekoan, adierazten denaren arabera.

*9.-OHARRA.- ONDARE TRESNAK*

Sozietateak beste enpresa batzuetan dituen partaidetza balioengatik izandako bilakaera honako hau izan da:

| Kostua | Enpresa elkartuak |
|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **42.864.039,91** |
| - Altak<br>-Bajak | 749.995,00<br>0,00 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **43.614.034,91** |
| - Altak<br>-Bajak | 749.995,00<br>0,00 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **44.364.029,91** |

| Balio narriadura | Enpresa elkartuak |
|---|---|
| **Amaierako saldoa (2020.12.31)** | **-19.259.401,24** |
| - Altak<br>-Bajak | -1.135.118,46<br>163.456,95 |
| **Amaierako saldoa (2021.12.31)** | **-20.231.062,75** |
| - Altak<br>-Bajak | -189.736,35<br>690.137,23 |
| **Amaierako saldoa (2022.12.31)** | **-19.730.661,87** |

| | |
|---|---|
| **BALIO GARBIA** | **24.633.368,04** |

***Inbertsioak***

Sozietateak Arabako Teknologi Parkea SA sozietatearen 12.295 akzio berriren harpidetza egin eta ordaindu du ekitaldian zehar; akzioak batera jaulki ziren, 61,00 euroko balio nominalarekin bakoitza, eta guztira 749.995,00 euroko zenbatekoa ordaindu zen. Ordainketa hori egiteko, sozietateak kopuru horren pareko itzuli beharrik gabeko dirulaguntza jaso du Arabako Foru Aldunditik.

***Balio narriadura***

Ekitaldian 500.400,88 euroko narriadura lehengoratze garbia erregistratu da. 2021ean, narriadura garbia -1.135.118,46 eurokoa izan zen. Honakoa da partizipaziozkoen araberako osaera zehatza:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Gehikuntza** | | |
| Arabako Teknologi Elkartegia SA | -132.615,19 | -834.440,52 |
| CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA | 0,00 | -292.601,87 |
| Arabako Industrialdea SA | -57.121,16 | -8.076,07 |
| **Gehikuntza, guztira** | **-189.736,35** | **-1.135.118,46** |
| **Gutxitzea** | | |
| CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA | 74.091,28 | 163.456,95 |
| Araba Logistika SA | 616.045,95 | 0,00 |
| **Gutxitzea, guztira** | **690.137,23** | **0,00** |
| **ITZULKINA/NARRIADURA GARBIA** | **500.400,88** | **-1.135.118,46** |

***Partizipaziozko sozietateen egoera***

*Arabako Industrialdea SA*

- Arabako Industrialdea, SA sozietateak Arabako lurralde historikoan industria ekimena eta inbertsioa piztea eta sustatzea ditu helburu, industriak eta industrialdeak eraikitzeko lurzorua sustatuz.

- Sozietatearen egoitza: Uzbina, 24 – 13. bulegoa, Jundizko Industrialdea (Gasteiz).

- Partizipazioaren ehunekoa: % 43,25

- Balioa liburuetan: 3.898.564,03 euro.

- Ondare garbia, 2022ko ekitaldia ixtean:

| Kontzeptua | Euro |
|---|---|
| - Sozietatearen kapitala | 12.855.624,39 |
| -Erreserbak | 286.389,09 |
| - Emaitza negatiboak | -3.995.915,00 |
| -Ekitaldiko emaitza (*) | -132.074,00 |

(*) Ustiapenaren emaitza: -141.155,00 euro.

*CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA*

- CTV Gasteizko Garraio Zentroa SAren xedea da Gasteizko Garraio Zentroa eta aduana esparrua sustatu, instalatu eta ustiatzea, Gasteizko salgaien trafikoa hobetze aldera.

- Sozietatearen egoitza: Lermandabide, 8 – Jundizko industrialdea. Gasteiz.

- Partizipazioaren ehunekoa: % 39,774

- Balioa liburuetan: 6.101.686,16 euro.

- Ondare garbia, 2022ko ekitaldia ixtean:

| Kontzeptua | Euro |
|---|---|
| - Sozietatearen kapitala | 16.085.328,00 |
| -Erreserbak | 74.134,85 |
| -Ekitaldiko emaitza (*) | 308.348,90 |

- (*) Ustiapenaren emaitza: 301.030,00 euro

- Kasu honetan, diruz lagundutako akzioen narriadura itzulezina aitortzean, kontabilitate balio teorikoa baino balio handiagoko narriadura gertatzen da.

*Arabako Teknologi Elkartegia, SA*

- Arabako Teknologia Parkea SA sozietatearen xedea da enpresa ekimena eta inbertsioa bultzatzea eta sustatzea, enpresa berritzaileentzat eta teknologia handiko enpresentzat azpiegiturak eraikiz.

- Sozietatearen egoitza Miñaoko Teknologia Parkean (Araba) – bulego nagusiak.

- Partizipazioaren ehunekoa: % 26,24

- Balioa liburuetan: 13.404.097,84 euro.

- 2022ko ekitaldiaren itxierako funts propioak:

| | Euro |
|---|---|
| - Sozietatearen kapitala | 66.339.513,00 |
| -Erreserbak | -12.976.416,21 |
| -Ekitaldiko emaitza (*) | -2.231.610,62 |

(*) Ustiapenaren emaitza: -2.226.934,00 euro

*Araba Logística SA*

- Araba Logística SA enpresaren xede soziala da logistika jardueretan erabiliko diren eraikinak ustiatzea.

- Sozietatearen egoitza: Araba hiribidea z.g., Ribabellosa.

- Partizipazioaren ehunekoa: % 13,11

- Balioa liburuetan: 1.229.020,00 euro.

- Ondare garbia, 2022ko ekitaldia ixtean:

| | Euro |
|---|---|
| - Sozietatearen kapitala | 1.750.005,00 |
| -Erreserbak | 4.358.820,02 |
| -Ekitaldiko emaitza (*) | 6.534.721,36 |

(*) Ustiapenaren emaitza: 7.665.533,32 euro

***10. OHARRA.- FINANTZA-AKTIBOAK ETA PASIBOAK***

***10.a) Finantza-aktiboak***

Ondoren, sozietatearen finantza-aktiboak biltzen dituzten partidak xehakatuko ditugu 2021eko abenduaren 31ko eta 2022ko abenduaren 31ko datekin, enpresa elkartuetan egindako inbertsioak kontuan hartu gabe:

| | 2022 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Epe luzea** | **Epe laburra** | **Guztira** | **Epe luzea** | **Epe laburra** | **Guztira** |
| - Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 1.707.253,55 | 141.409,69 | 1.848.663,24 | 2.145.172,36 | 394.561,76 | 2.539.734,12 |
| - Merkataritzako zordunak eta beste batzuk | 0,00 | 538.595,34 | 538.595,34 | 0,00 | 486.778,31 | 486.778,31 |
| - Beste finantza-aktibo batzuk | 112,22 | 5.792.781,48 | 5.792.893,70 | 112,22 | 2.559.752,35 | 2.559.864,57 |
| **GUZTIRA** | **1.707.365,77** | **6.472.786,51** | **8.180.152,28** | **2.145.284,58** | **3.441.092,42** | **5.586.377,00** |

***Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk***

Hona hemen emandako maileguak:

| | 2022 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Maileguak** | **Epe luzea** | **Epe laburra** | **Guztira** | **Epe luzea** | **Epe laburra** | **Guztira** |
| - Higiezinak saltzeagatiko ordainketa geroratuak | 711.492,10 | 45.853,40 | 757.345,50 | 1.053.854,60 | 312.431,54 | 1.366.286,14 |
| - Kobratzeke dauden kuotak – Finantza errentamendua | 995.761,45 | 95.556,29 | 1.091.317,74 | 1.091.317,76 | 82.130,22 | 1.173.447,98 |
| **GUZTIRA** | **1.707.253,55** | **141.409,69** | **1.848.663,24** | **2.145.172,36** | **394.561,76** | **2.539.734,12** |

- *Higiezinak saltzeagatiko ordainketa geroratuak*

  Partida honetan, higiezin salmentengatiko ordainketa geroratuen zenbatekoa jaso da. Kontratuak, urteko ordainketak eta interes tasak hauek dira:

| | Urtea | Epe laburra | Epe luzea | Guztira | Interes tasa |
|---|---|---|---|---|---|
| - Miñaoko pabiloia | 77.828,40 | 45.853,40 | 711.492,10 | 757.345,50 | Euriborra + % 2,00 |
| **GUZTIRA** | | **45.853,40** | **711.492,10** | **757.345,50** | |

Miñaoko pabiloia 2021ean saltzeagatik geroratutako ordainketak higiezinaren lehen hipotekarekin bermatuta daude, eta beste finantza erakunde batzuen zorren maila bera dute. Hamabost urtetan amortizatzen da, hileko 5.663,66 euroko ordainketa berdinen bidez, tronkoaren eta interesen amortizazioa barne, Euriborra + % 2ko interes tasa sortuz.

Lehenengo ekitaldian eragiketaren BEZa ordaintzea aurreikusten da. Ekitaldikako epemugak honako hauek dira:

| | Euro |
|---|---|
| - Urtebetera arte | 45.853,00 |
| - 1 eta 5 urte bitartean | 197.802,73 |
| - 5 urte baino gehiago | 513.689,37 |
| **GUZTIRA** | **757.345,10** |

- *Kobratzeke dauden kuotak – Finantza errentamendua*

Finantza errentamenduko kontratuetatik ondorioztatzen diren eta kobratzeke dauden kuotak 8. oharrean zehazten dira.

***Merkataritza zordunak eta beste batzuk***

Epe laburrerako epemuga izanik, jarraian partida hau kontzeptuka banatzen da:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Merkataritzako zordunak | 695.648,95 | 715.710,98 |
| - Administrazio publikoak (15. oharra) | 126.470,18 | 121.708,22 |
| - Langileak | 2.530,00 | 3.850,00 |
| - Balioaren narriadura | -286.053,79 | -354.490,89 |
| **GUZTIRA** | **538.595,34** | **486.778,31** |

***Beste finantza-aktibo batzuk***

Partida honako kontzeptu hauen arabera banakatu da:

| | 2022 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Epe luzea | Epe laburra | Guztira | Epe luzea | Epe laburra | Guztira |
| - Fidantzak eta gordailuak | 112,22 | 26.200,55 | 26.312,77 | 112,22 | 7.579,42 | 7.691,64 |
| - Arabako Foru Aldundiaren kontu berezia | 0,00 | 5.766.580,93 | 5.766.580,93 | 0,00 | 2.552.172,93 | 2.552.172,93 |
| **GUZTIRA** | **112,22** | **5.792.781,48** | **5.792.893,70** | **112,22** | **2.559.752,35** | **2.559.864,57** |

Araba Garapen Agentzia SAU sozietateak eskudiruko gordailu bat du Arabako Foru Aldundiko kontu orokorretan. Ez da interesik sortu ekitaldian zehar.

***10.b) Finantza-pasiboak***

Sozietatearen finantza-pasiboak biltzen dituzten partiden xehakapena 2021eko abenduaren 31n eta 2022ko abenduaren 31n hauxe da:

| | 2022 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Epe laburra | Epe luzea | Guztira | Epe laburra | Epe luzea | Guztira |
| - Kreditu erakundeekiko zorrak | 413.381,95 | 1.422.767,24 | 1.836.149,19 | 407.334,91 | 1.829.272,12 | 2.236.607,03 |
| - Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | 407.124,33 | 0,00 | 407.124,33 | 695.213,45 | 0,00 | 695.213,45 |
| -Beste finantza-pasibo batzuk | 444.907,42 | 1.650.000,00 | 2.094.907,42 | 421.392,45 | 31.412,91 | 452.805,36 |
| **GUZTIRA** | **1.265.413,70** | **3.072.767,24** | **4.338.180,94** | **1.523.940,81** | **1.860.685,03** | **3.384.625,84** |

***Kreditu erakundeekiko zorrak***

Saldoa Banco de Santander Central Hispano erakundeak 2015eko maiatzaren 8an emandako kredituari dagokio. Kredituaren zenbatekoa 3.658.544,00 euro da guztira, eta Subillabide industrialdean dagoen bere jabetzako industria pabiloi bat finantzatzeko da. Horren gainean errentamendu kontratu bat sinatu da. Maileguak 12 urteko epea du, eta hiru urteko gabealdia. Interes hau sorrarazten du: Euriborra + % 0,82 (2022an % 2,56). Arabako Foru Aldundiak abalatzen du. Hauek dira zor horren epemugak:

| Ekitaldia | Euro |
|---|---|
| 2023 | 406.504,88 |
| 2024 | 406.504,88 |
| 2025 | 406.504,88 |
| Gainerakoa | 609.757,48 |
| **Guztira** | **1.829.272,12** |

Kontabilitate saldoaren barruan sortutako eta mugaeguneratu gabeko 6.877,07 euroko interesak sartzen dira.

***Beste finantza-pasibo batzuk***

Partida honetan hauxe jaso da:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Gauzatu gabe dauden bazkideen ekarpenak | 1.650.000,00 | 31.412,91 |
| -Beste finantza-pasibo batzuk | 444.907,42 | 421.392,45 |
| **GUZTIRA** | **2.094.907,42** | **452.805,36** |

Gauzatu gabe dauden bazkideen ekarpenen partidak Arabako Foru Aldundiak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 8ko 667/2022 Erabakiaren bidez Aiaraldeko Eskualdeko Berehalako Jarduketa Planeko ekimenak finantzatzeko emandako ekarpena jasotzen du, eta honako ekimen hauek jasotzen ditu:

- Laudio Glass Hub, 500.00.00,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izanik.
- Aiaraldea Industrial Lab., 1.000.000,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2024ko ekainaren 28a izanik.
- Industrialdeak modernizatzea, 150.000,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2024ko ekainaren 28a izanik.

Ekarpen hori Bazkideek Funts Propioetara egindako ekarpenaren izaera du, eta deskribatutako ekintzak gauzatuko diren gastuak finantzatzera bideratuta dago, eta ezin da ezeztatu proiektuen gauzatze-mailaren arabera. Ekitaldiaren itxiera datan, proiektuak gauzatzen hasi gabe zeuden.

***10.c) Finantza-aktiboen eta pasiboen sailkapena***

***Finantza-aktiboak***

| | 2022ko abenduaren 31ko saldoa | Arrazoizko balioko finantza-aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak | Kostu amortizatuko aktiboak | Kostuko finantza-aktiboak | Arrazoizko balioko finantza-aktiboak, ondare garbian aldaketak sortu dituztenak |
|---|---|---|---|---|---|
| Epe luzerako finantza tresnak | 1.707.365,77 | 0,00 | 1.707.365,77 | 0,00 | 0,00 |
| Epe laburrerako finantza tresnak | 6.346.316,33 | 0,00 | 6.346.316,33 | 0,00 | 0,00 |

***Finantza-pasiboak***

| | 2022ko abenduaren 31ko saldoa | Kostu amortizatuko finantza-pasiboak | Arrazoizko balioko finantza-pasiboak, galera-irabazien kontuan aldaketak sortu dituztenak |
|---|---|---|---|
| Epe luzerako finantza tresnak | 3.072.767,24 | 3.072.767,24 | 0,00 |
| Epe laburrerako finantza tresnak | 1.229.415,91 | 1.229.415,91 | 0,00 |

***10.d) Finantza-aktiboen izaerari eta arrisku mailari buruzko informazioa***

***Interes tasaren arriskua***

Finantza-aktiboei dagokienez, diruzaintzako soberakinak Arabako Foru Aldundian gordailututa daude, erakunde horrekin adostutako interes tasarekin. Horregatik guztiagatik, ez dago interes tasaren arriskurik.

Finantza-pasiboei dagokienez, interes tasak Euriborraren araberakoak dira.

***Likidezia arriskua***

Sozietateak bere diruzaintza Arabako Foru Aldundian eta kreditu maila handiko finantza erakundeetan dauka.

***Kreditu arriskua***

Bezero eta zordunei kobratu beharreko kontu gehienak berme errealeko higiezinen salerosketen ondorio dira.

***11. OHARRA- IZAKINAK***

Izakinen kontua honela zegoen osatuta 2021eko abenduaren 31n eta 2022ko abenduaren 31n:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Landa lurrak | 571.265,19 | 571.265,19 |
| - Abian diren sustapenak | 4.238.923,49 | 4.178.435,33 |
| - Produktu bukatuak | 14.976.992,55 | 19.995.592,37 |
| - Aurrerakinak | 507.000,36 | 182.835,51 |
| - Balioaren narriadura | -6.581.200,32 | -8.410.204,97 |
| **GUZTIRA** | **13.712.981,27** | **16.517.923,43** |

***a) Landa lurrak***

Atal honetan landa lur hauen balioa jaso da:

| Poligonoa | Azalera m2 | Balioa (euroak) |
|---|---|---|
| - Goiain | 313.402 | 334.019,56 |
| - Araia | 147.372 | 143.271,20 |
| -Aiara | 61.155 | 53.762,46 |
| - Litutxipi | 5.249 | 3.941,90 |
| -Amurrio | 40.367 | 36.270,07 |
| **GUZTIRA** | | **571.265,19** |

***Abian diren sustapenak***

Hau da abian diren sustapenen xehapena:

| Poligonoa | Azalera m2 | Balioa (euroak) |
|---|---|---|
| - Langraiz | 30.780,19 | 2.420.798,33 |
| - Ortuna | 15.441,09 | 124.635,16 |
| - Casablanca | 105.735,00 | 1.693.490,00 |
| **GUZTIRA** | | **4.238.923,49** |

***b) Produktu bukatuak***

Epigrafe honetan salgai jartzeko moduan dauden sozietateko lurzatiak jaso dira:

| Poligonoa | Azalera m2 | Euro |
|---|---|---|
| - Goiain (*) | 43.041,00 | 516.461,01 |
| - Galzar (*) | 92.083,00 | 3.334.948,66 |
| -Subillabide (*) | 69.914,00 | 4.353.129,85 |
| - Casablanca II | 65.143,56 | 5.846.164,59 |
| - Okondo (**) | 2.350,00 | 101.358,54 |
| - Asparrena - Donemiliaga (**) | 15.000,00 | 384.387,10 |
| - Jundiz (**) | 4.149,83 | 246.845,26 |
| - Markixana | | 193.697,54 |
| **GUZTIRA** | | **14.976.992,55** |

(*) Sustapen amaitua
(**) Salgai dauden lurzatiak eta pabiloiak

***c) Balio narriadura***

Izakinen balio galeragatiko hornidurаren helburua da egiten ari diren eta amaituta dauden sustapen jakin batzuen balio garbia haien gauzatze baliora hurbiltzea, balio hori kontabilitate balioa baino txikiagoa dela egiaztatzean.

Narriaduragatiko hornidura honela xehakatu da, beraren izaera eta kasuan kasuko sustapena kontuan hartuta:

| Abian diren sustapenak: | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Langraiz | 1.466.613,18 | 1.466.613,18 |
| - Casablanca | 169.181,00 | 169.181,00 |
| **GUZTIRA** | **1.635.794,18** | **1.635.794,18** |

| Amaitutako sustapenak: | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Goiain | 535.599,41 | 535.599,41 |
| - Galzar | 208.636,45 | 220.477,23 |
| -Subillabide | 899.174,09 | 1.201.978,46 |
| - Casablanca | 2.601.298,31 | 5.761.739,90 |
| - Markixana | 193.697,52 | 327.040,62 |
| - Tuesta | 507.000,36 | 182.835,51 |
| **GUZTIRA** | **4.945.406,14** | **8.229.671,13** |

| | | |
|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **6.581.200,32** | **9.865.465,31** |

Sustapen esanguratsuenak osatzen dituzten izakinen balioa doitu da, lurzoruaren tasazioan oinarritua, erreferentzia harturik landa lurzoruaren prezioa, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Desjabetzeen Zerbitzuak zehaztutakoa. Hona hemen balio doikuntzak, industrialdez industrialde:

- Langraizko industrialdea: San José de los Llanosko industrialdeko 2. sektoreko lurzatian egindako balorazioari dagokio. Lurzati horren erosketa prezioak barruan hartzen zituen erosi aurretik egindako azpiegitura obrak, bai eta jada egindako sarbideen kostua ere. Balioa zenbatesteko, kontuan hartu da soilik landa lurren azaleraren prezioa, inolako jarduketarik kontuan hartu gabe.
  Irizpide horrek oinarritzat hartzen du lurzatiak eskura jarri arte egin behar den urbanizazioaren guztizko kostua, eta kostu hori osorik hartzen du bere barnean urbanizatutako lurzatiaren merkatuko prezioak.

- Casablanca IIko industrialdea: Industrialde horren egoera ikusita, salmenta eragiketei dagokienez, sozietateak aditu independenteek egindako balorazio eguneratua eskatu du, eta dagoeneko urbanizatuta dagoen I. faserako eta urbanizatu gabeko II. faserako tasazio balioa kalkulatu du.

- Galzar eta Subillabide industrialdeak: Kasu honetan kontuan hartu da lursailaren azaleraren balioa, Desjabetze Zerbitzuak ezarritako prezioak sozietatearen jabetzako lurzatiei egotzi beharreko lur azalera gordinari aplikatuz. Ez da urbanizazio kostuaren ondoriozko doikuntzarik egin, kostu eraginkorraren arabera egiten da balorazioa.

Goiaingo industrialdeko lurzatiaren balioaren narriadura sortu zen Legutioko Udalarekin irabazizko hirigintza aprobetxamenduaren likidaziorako egin diren akordioen ondorioz, lurzatia doan ematea aurreikusten baita.

Markixanako industrialdeko lurzatiari dagokion balio narriadura, berriz, haren merkatuko balioaren zenbatespenaren arabera erregistratu da.

Administratzaileen ustez, egindako doikuntzekin, izakinen partida osatzen duten higiezinen balioak egoki zenbatetsita daude, higiezinen merkatuaren egungo egoerarekin eta sozietatearen jarduerarekin berarekin lotuta, oinarritzat baitu enpresak sustatzea, industria ehuna sortuz, lurzoru erreserba baten bitartez. Horrela, izakinen balioari ez diote eragingo sozietateak gauzatu beharreko sustapen politikek. Hona hemen balorazio horri eusten dioten inguruabarrak:

- Lurzoruaren balioa merkatuko egungo prezioaren arabera zenbatetsi da.
- Urbanizazio kostuak, berriz, obrak egin zirenean benetan ordaindutakoak dira.
- Lurzatiaren balioan sartuko ez diren urbanizazioen gastuak zuzendu egin dira.

***d) Erosketa konpromisoak.***

2008ko urriaren 20an, sozietateak “Valdegovia Sociedad Urbanística y Desarrollo Integral SA” sozietateari Gaubeako arau subsidiarioetako 22796 SAUI-2 finka bat erosteko konpromisoa sinatu zuen.

Kontratu horren arabera, Gaubean 105.181,89 m²-ko lurzatia erosteko konpromisoa hartu zuen. Prezioa: 6,60 euro/m².

507.000,36 euroko aurrerakina ordaindu da, eta gainerakoa eskritura publikoa egitean ordainduko da.

*12. OHARRA-. FUNTS PROPIOAK*

Epigrafe hau osatzen duten kontuek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian:

| | 2021 | | | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako saldoa | Gehitzeak | Gutxitzeak | Amaierako saldoa | Gehitzeak | Gutxitzeak | Amaierako saldoa |
| - Sozietatearen kapitala | 86.196.000,00 | 312.000,00 | 0,00 | 86.508.000,00 | 0,00 | 0,00 | 86.508.000,00 |
| - Akzio jaulkipenen prima | 9.472.420,94 | 0,00 | 0,00 | 9.472.420,94 | 0,00 | 0,00 | 9.472.420,94 |
| -Legezko erreserba | 1.376.267,33 | 197.597,07 | 0,00 | 1.573.864,40 | 0,00 | 0,00 | 1.573.864,40 |
| - Erabilgarri ez dagoen erreserba | 6,67 | 0,00 | 0,00 | 6,67 | 0,00 | 0,00 | 6,67 |
| - Erreserba bereziak | 0,00 | 1.688.526,90 | 0,00 | 1.688.526,90 | 0,00 | 0,00 | 1.688.526,90 |
| - Borondatezko erreserba | 21.807,44 | 0,00 | 0,00 | 21.807,44 | 0,00 | 0,00 | 21.807,44 |
| - Emaitza negatiboak | -35.493.348,82 | 1.631.018,65 | 0,00 | -33.862.330,17 | 388.087,47 | -1.184.042,86 | -34.658.285,56 |
| -Bazkideen ekarpenak | 0,00 | 500.000,00 | 0,00 | 500.000,00 | 126.320,53 | -500.000,00 | 126.320,53 |
| - Galerak eta irabaziak | 1.975.970,75 | -1.684.042,86 | -1.975.970,75 | -1.684.042,86 | -126.320,53 | 1.684.042,86 | -126.320,53 |
| **GUZTIRA** | **63.549.124,31** | **2.645.099,76** | **-1.975.970,75** | **64.218.253,32** | **388.087,47** | **0,00** | **64.606.340,79** |

- Sozietatearen kapitala 86.508.000,00 eurokoa da, eta erabat harpidetuta eta ordainduta dauden 14.418 akzio izendunek ordezkatzen dute; horietariko bakoitzak 6.000,00 euroko balio izendatua du. Arabako Foru Aldundiak dauka partaidetza osoa.

  Esan behar da Arabako Foru Aldundiak eta Arabako lurralde historikoetako udalek bakarrik izan dezaketela bazkide izaera. Arabako Foru Aldundiaren partaidetza ezin da izan kapital sozialaren % 70 baino txikiagoa.

- Kapital sozietateen Legearen arabera, legezko erreserba, kapital sozialaren % 20 baino gehiago ez den bitartean, ezin zaie banatu akziodunei, eta galeren konpentsaziora bakarrik bideratu ahal izango da, beste erreserba eskuragarririk eduki ezean. Era berean, kapital soziala gehitutako % 10 gainditzen duen zatian gehitzeko erabili ahal izango da erreserba hori.

- 2020an erreserba berezi bat ezarri zen enpresa kapitalizazioa sustatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren 51. artikuluan arautukoaren arabera. Erreserba hori ezin da erabili gutxienez bost urtez, kenkariari dagokion zergaldia amaitzen denetik aurrera, kapitalari gehitu zaion igoeraren zatian izan ezik.
  Aldi horretan zerga ondorioetarako ondarearen zenbatekoak lehengoan jarraitu edo gora egin behar du, kontabilitateko galeren ondorioz jaitsiera gertatu ezean.

- Foru Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 31n ebatzi zuen 514.408,00 euro ordaintzea sozietateari galerak konpentsatzeko, 388.087,47 euro aplikatuta aurreko ekitaldietako galerei, eta 126.320,53 euro ekitaldiko galerei.

*13. OHARRA.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK*

Sozietateak jasotako dirulaguntzei, dohaintzei eta legatuei buruzko informazioa eta haietatik datozen galera-irabazien kontuari egotzitako emaitzak hauek dira:

| | Euro |
|---|---|
| **Saldoa 2020.12.31n** | **14.541.813,16** |
| - 2021ean emandako dirulaguntzak eta dohaintzak | 903.457,58 |
| - Erreserbetara intsuldatutako zuzenketa | -1.838.787,18 |
| - Emaitzei egotzitako zenbatekoa | -3.701.853,88 |
| **Saldoa 2021.12.31n** | **9.904.629,68** |
| - 2022an emandako dirulaguntzak eta dohaintzak | 3.717.349,15 |
| - Emaitzei egotzitako zenbatekoa | -3.309.450,77 |
| **Saldoa 2021.12.31n** | **10.312.528,06** |

Partida hau jasotzen du:

| | Jatorrizko zenbatekoa | Emaitzetarako intsuldaketa | Saldoa 2022.12.31n |
|---|---|---|---|
| - Fernando Buesa Arena pabiloia doan erabiltzeko lagapena | 2.967.354,15 | 0,00 | 2.967.354,15 |
| - Kapitala handitzeko ekarpena - CTV | 4.529.977,40 | -2.385.443,89 | 2.144.533,51 |
| - Kapitala handitzeko ekarpena - APT | 5.267.327,50 | -1.683.925,13 | 3.583.402,37 |
| Subillabideko eraikina egiteko finantzaketa | 2.500.000,00 | -925.777,71 | 1.574.222,29 |
| - Aldalur Araba SLren landa finken gozamena | 52.849,50 | -9.833,76 | 43.015,74 |
| **GUZTIRA** | **15.317.508,55** | **-5.004.980,49** | **10.312.528,06** |

- 2022ko ekainaren 14an, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen beste doako lagapen bat egitea sozietateari, Fernando Buesa Arena pabiloiaren kirol instalazioa ustiatzeko. Lagapenak hamabost urte iraungo du, 2022ko abenduaren 31tik aurrera, abenduaren 30eko 925/2010 Erabakiaren bidez onetsitako lagapenaren indarraldia amaitu ondoren. Lagapen aldian lortu beharreko errenten zenbateko eguneratuaren arabera baloratu da.

- Arabako Foru Aldundiak 2013ko ekitaldian erabaki zuen 1.132.524,40 euroko ekarpena egitea sozietateari, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SAren kapitala gehitzean sozietateak harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko.
  Era berean, Arabako Foru Aldundiak 2014ko ekitaldian erabaki zuen 906.000,00 euroko ekarpena egitea sozietateari, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SAren kapitala gehitzean sozietateak harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko.
  2015ean 1.132.500,00 euro izendatu ditu, guztira, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SAren kapital gehikuntzan harpidetutako akzioengatik ekitaldian egin beharreko ordainketa finantzatzeko.
  2016an 1.358.953,00 euro izendatu ditu, guztira, 2015ean CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SAren kapital gehikuntzan harpidetutako akzioengatik 2016ko ekitaldian egin beharreko ordainketa finantzatzeko.
  Emaitzei aplikatzen zaie, parte-hartzeak ekitaldietan izandako balio galeraren arabera, baina ekitaldian ez da inolako zenbatekorik aplikatu.

- Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak, 2014ko abenduaren 23an, Subillabide industrialdean industria nabe baten eraikuntza finantzatzeko 2.500.000,00 euro esleitzea erabaki zuen; geroago, 2015eko ekainaren 2an, erabaki hori aldatu egin zuen. Emaitzei finantzatutako aktiboaren amortizazioaren eta balio narriaduraren arabera aplikatu zaie, eta 2022an 123.127,22 euro izan da.

- Foru Gobernu Kontseiluak zenbait erabaki eman ditu bata bestearen segidan, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak 2016an egindako 762.300,00 euroko kapital gehikuntzan harpidetutako akzioak ordaintzeko sozietateari emandako maileguaren amortizazioa eta interesak ordaintzeko finantzaketarako dirulaguntza emateko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2017ko urriaren 3an, erabaki zuen sozietateari 750.000,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2018ko abenduaren 3an, erabaki zuen sozietateari 749.950,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko azaroaren 19an, erabaki zuen sozietateari 749.950,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko abenduaren 22an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko azaroaren 16an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko abenduaren 27an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitzei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2022an, 172.007,05 euro aplikatu zaizkie emaitzei, partaidetzaren balio galerari dagozkionak.

- Aldalur Araba SL sozietatea xurgapen bidez bat egitearen ondorioz, Arabako Foru Aldundiak landa finka jakin batzuen gozamena sozietate horri lagatzearen ondorioa gehitu zen, 52.823,10 eurotan. Ekitaldiko emaitzei 2.458,44 euro aplikatu zaizkie.

- Gainera, emaitzei aplikatu zaizkie aplikatzeko dauden zenbatekoak, doako erabilera lagapenari eta Fernando Buesa Arena pabiloia handitzeko eta birmoldatzeko obrak finantzatzeko ondorengo dirulaguntzei lotutakoak, abenduaren 30eko 295/2010 akordioaren araberako lagapen aldia amaitzean.

***14. OHARRA.- HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK***

***Epe luzerako hornidurak***

Horniduren kontuek honako bilakaera hau izan dute epe luzera:

| | 2021 | | | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Hasierako saldoa** | **Altak** | **Bajak** | **Amaierako saldoa** | **Altak** | **Bajak** | **Amaierako saldoa** |
| - Bestelako erantzukizunetarako hornidurak | 230.483,39 | 198.666,87 | 0,00 | 429.150,26 | 0,00 | 0,00 | 429.150,26 |
| **GUZTIRA** | **230.483,39** | **198.666,87** | **0,00** | **429.150,26** | **0,00** | **0,00** | **429.150,26** |

Arrisku hornituak ondoko hauek dira:

- Legutioko Udalarekin adostutako ordainketa, 216.037,11 eurokoa, erakunde horrek Goiaingo industrialdea hartzean.
- Laudioko lurren ekarpenak, 14.446,28 eurokoak.
- Lurzati baten antzinako erosle batek egindako erreklamazio judiziala, sortutako zenbait kontingentziarengatik, erantzukizun posiblearen estimazio arrazoizkoenaren arabera kuantifikatuta (20. oharra).

Kontu honek ez du aldaketarik izan ekitaldian.

*15. OHARRA-. ZERGA EGOERA*

Administrazio publikoarekiko saldoak 2021eko abenduaren 31n eta 2022ko abenduaren 31n, zerga izaeradunak, honako hauek izan dira:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Saldo zorduna** | **126.470,18** | **121.708,22** |
| - Zorduna BEZagatik | 126.439,56 | 71.810,08 |
| - Atxikipenak eta konturako ordainketak | 30,62 | 49.898,14 |
| **Saldo hartzekoduna** | **35.997,79** | **29.897,84** |
| -Gizarte Segurantza | 12.936,12 | 10.794,09 |
| - Hartzekoduna PFEZagatik | 23.061,67 | 19.103,75 |

Sozietateak abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua bete behar du, sozietateen gaineko zergarena (2013ko abenduaren 27ko ALHAO).
2021eko ekitaldiko zergaren likidazioa hau izan zen:

| | Euro |
|---|---|
| **Emaitza zergak aplikatu aurretik** | **-1.684.042,86** |
| - Erreserbei egotzitako doikuntzak | 1.540.171,87 |
| **Zerga oinarria** | **-143.870,99** |
| - Karga tasa | 24,00% |
| **Kuota osoa** | **0,00** |
| - Kuotaren kenkariak | |
| **Kuota likidoa** | **0,00** |

2022ko ekitaldiko zergaren likidazioa hau da:

| | Euro |
|---|---|
| **Emaitza zergak aplikatu aurretik** | **-126.320,53** |
| **Zerga oinarria** | **-126.320,53** |
| - Karga tasa | 24,00% |
| **Kuota osoa** | **0,00** |
| - Kuotaren kenkariak | |
| **Kuota likidoa** | **0,00** |

Ez dauka aplikatzeko dagoen kuotaren kenkaririk. Hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak 69.602.349,87 euro dira.

Sozietateari aplikagarriak zaizkion zerga nagusien azken bost ekitaldietako ikuskapena oraindik ez dute egin zerga agintariek.

Indarrean dauden lege xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo harik eta zerga agintariek ikuskatu arte edo egun ezarrita dagoen lau urteko preskripzio epealdia igaro arte. Sozietateak azken lau ekitaldiak irekita ditu aplika dakizkiokeen zerga guztiak ikuskatzeko. Sozietatearen administratzaileen iritziz, ikuskapenik egitekotan, ez litzateke egongo zenbateko handiko zerga kontingentziarik sozietateari aplika dakiokeen zerga araudia modu ezberdinean interpretatzeagatik.

## *16. OHARRA.- DIRU SARRERAK ETA GASTUAK*

### *a) Diru sarrerak*

#### *a.1) Negozio zifraren zenbateko garbia*

Partida honek kontzeptu hauek jasotzen ditu:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Lurzati urbanizatuen salmenta | 3.778.073,10 | 1.599.814,00 |
| - Industria pabiloien alokairua | 782.296,01 | 712.563,19 |
| **GUZTIRA** | **4.560.369,11** | **2.312.377,19** |

#### *a.2) Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk*

Kontu honek ondoko kontzeptuak dauzka:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Errentamenduak | 269.440,00 | 269.440,00 |
| - Ur harguneetako eskubideak eta hornidurak | 546.570,46 | 519.782,55 |
| - Industrialdeak mantentzea | 272.487,75 | 218.313,96 |
| - Hainbat diru sarrera | 50.437,47 | 41.239,37 |
| **GUZTIRA** | **1.138.935,68** | **1.048.775,88** |

Ekitaldi honetan, sozietateak lurzatien jabeei jasanarazi dizkie Goiain, Asparrena, Casablanca I eta II eta Los Llanos II industrialdeak mantentzeko izandako gastu komunak.

### *b) Gastuak*

#### *b.1) Hornidurak*

“Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa” izeneko partida, ekitaldi honetan, urbanizazio gastuek (245.247,24 euro) osatzen dute. Aurreko ekitaldian, lursailak (lurzatiak) erosi ziren 1.618.246,00 euroren truke, eta urbanizazio-gastuak 185.065,18 euroren truke.

#### *b.2) Ustiapeneko beste gastu batzuk*

“Kanpoko zerbitzuak” izeneko partidan honako kontzeptu hauek sartzen dira:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| - Errentamenduak | 240.094,11 | 224.872,54 |
| - Konponketa eta kontserbazioa | 82.032,10 | 119.492,45 |
| - Zerbitzu profesional eta independenteak | 70.488,78 | 67.172,83 |
| -Garraioak | 1.244,38 | 50,34 |
| -Aseguru primak | 38.379,80 | 35.707,77 |
| - Banku zerbitzuak | 131,31 | 54,94 |
| - Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak | 410.694,04 | 333.290,00 |
| -Hornidurak | 927.288,77 | 788.906,48 |
| -Beste zerbitzu batzuk | 80.580,70 | 46.638,56 |
| **GUZTIRA** | **1.850.933,99** | **1.616.185,91** |

Izarran (Araba) dauden eta Deportivo Alavés SADen jabetzako Izarra ikastetxeari dagozkion finka batzuen azalera eskubidearen titularra da sozietatea hamabi urterako, 2011n sinatu zuenetik. Kontratu hori sinatu zenetik, 239.098,35 euroko urteko kanona ordaindu du, eta zaintza eta erabilera gastuak bere gain hartu ditu. Egun ez dago lotua inolako jarduerari, eta egokitzapen prozesuan dago.

***b.3) Langile gastuak***

Hona hemen langileen gastuen xehetasunak:

